

Berrigara

BERGARA • ELGETA • ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 28a / 563. zenbakia



AUZO ALKATEAK IZENDATU DITUZTE

KIROLAK: BERGARARRAK DONOSTIAKO MARATOIAN/10 • GABERO ABESBATZA: EMANALDIA ZAPATUAN/12



Sinpletasunaren xarma.
Txikitasunean handi.



Ibargarai 36-38 BERGARA. Tel./faxa: 943 76 70 58

UDA-BERGARA

Aretxabaletarren
eta bergararren
arteko derbia GOITBn

Domekan, azaroaren 30ean
Ibarra futbol zelaian, 16:30ean.
19:30ean GOITBn



**Ikusiko
duzu!**

UDA-BERGARA
Aretxabaletako laguntzaileak: Aretz, Azkena,
Basabe Jatetxea, Ezkutu, Gurea, Orly, Zارايا.
Bergarako laguntzaileak: Pol-Pol eta Nahikari taberna.



NEBENTZIA EZPADA / Ze pentsatzen jatzu hainbat gaixen gañian daren nazioarteko egunak?



JUAN LUIS GONZALEZ
39 urte

KARMELE ORMAETXEA
47 urte

MARINA REINOSO
30 urte

IRATI ALTUNA
15 urte

MIGUEL MARGUSINO
32 urte

GLORIA BONILLA
46 urte

...dot uste eragin haundi-
...daukenik. Egun hori
...sasu eta jendiai ahaztu
...gitten jako aldarrikatuta-
...na. Bueno, eguna dato-
...renian gogorazteko
...balio dau. Hainbeste dare...

Kontzientziatuta ez dagon
jendiak, behintzat, alda-
rrikapenen bat dagola jakin
deixen balio dau. Eta kont-
zientziatuta darenen
kasuan, gogorazteko balio
dabela pentsatzen jat.


Gogorazteko eta kont-
zientziatzeko balio dabela
uste dot. Nik uste dot hel-
tzen diela jendiarengana,
eta gehixegi ez ailegatuta
be, beharrezkuak diela pen-
tsatzen jat.

Badare egun batzuk zer-
baittarako balio dabenak;
aldarrikapenekin lotuta
darenak baliogarrixak die.
Baina badare beste batzuk,
Aitaren eguna, adibidez,
dirua etaratzeko die.

Imaginatzen dot zerbaitte-
tarako balioko dabela. Jen-
dia kontzientzatzeko. Dana
dala, egunero da zeozen egu-
na... Nik ez jat garrantzia
berezirik ematen halako
egunei.

Nik uste dot baliogarrixak
diela. Behintzat jendiai
hainbat gairen gañeko
kontuak gogorazteko.
Gogorazten ez badie,
emoten dau ahaztu egiten
diela.

ALOKATATXISTUAK



ALOKATATXISTUAK UDAZKEN KULTURALEKO ZINEA Irakurle batek deitu
...Udazken Kultureko programazioaren gainean kexa azaltze-
...Azaroaren 13an Novedadesen egindako film laburren emanaldi-
...ko sarrerak 6 eurotan saltzea gehiagi iruditzen zaio, egueneroko
...ne klubak 3 eurotan izaten da-eta. Hori gutxi balitz, film laburrota-
...gehiengatik aurretik Novedadesen ikusitakoak ziren. /E.M.

LABARRUAN...

ASTEKO BERRIAK / 5	KIROLAK / 10	KULTURA / 12
Auzo alkateak ...keratuta	Karate ...txapelketa	Enaitz Alustiza ...bertsolaria
...hauteskun- ...doren, auzo ...alkate berriak ere ...izendatu dituzte. ...Guztira, bederatzia ...dira.	Kadete ate junior mailako Euskadi- ko Karate txapel- keta jokatu da domeka goizean kiroldegian.	Bagare sariketako finala jokatu du Gasteizen aben- duaren 4an. 20 bertsolariaren ar- tean sailkatu da.

ASTEKODATUA

16

BERGARAR DONOSTIAKO MARATOIAN

Bergarako 16 korrikalarik amai-
tu zuten domekan jokaturako
Donostiako Maratoia. Hamasei
txapeldun horien artean, Rober-
to Zurro izan zen onena, 2 ordu,
37 minutu eta 15 segundorekin.

BESTEKEESANA

“ Ekarpen foroaren
helburua da elkarrri
aurpegira begira
jarri eta hitz egitea.
Denon ahotan dabilen
hitza elkarrizketa da, baina gero, ez
dira bideak egituratzen eztabaida
hori benetan emateko. Eztabaida
guneak toki zabal eta irekia izan
nahi du elkarrizketarako. Parte-
hartzailerei eskatzen zaiena da
Euskal Herria aintzat hartzea, eta
gatazka politiko bat badagoela
onartu eta hura konpondu nahi
izatea. Azken xedea izango litzateke
Euskal Herriak etorkizunean bizirik
irauteko eta garatzeko ezinbesteko-
ak dituen soluziobideak topatzea.
(...) Argi dago politikarien esku utzi
izan ditugula herritarrok eginbide
horiek. Baina herriak gehiago parte
hartzeko nahi bat agertu du.

MAITE ARISTEGI /
Nazio Eztabaidaguneko bozeramailea
Berrria/03-11-26

BERAIEK DIÑO / Andres Osa 'Sakona'



*Lanbide
Heziketa:
erdalduna*

Lanbide Heziketa euskal-
duntzea da euskal
gizarteak duen egin
beharririk nagusienetari-
koa. Gizarteko esparru guztietan
euskara bermatzea da
etengabeko bete beharra. Hala
ere premiazkoena eta eragin
gehien duen esparrua lantegi-
koa da. Baina
Lanbide Heziketa
eta lantegia uztartu-
rik daude. Eta zer
egiten da eta nor
ardurutzen da
horrela gerta dadin?
Hezkuntza Saitetik
esaten da: “Lanbide
Heziketa kalitatez-
koa eman behar da
eta duina egin behar
da”. Kalitatezkoa bai eta duina
ere bai baina horrekin zer
ulertzen da?. Lanbide Hezike-
tan urrats inportanteak eman
dira. Baina euskararik gabe
ezinezkoa da benetako kalitatea
eta duintasuna garatzea.
Iztuetak oraintsu esan zuen
Bilboko Euskalduna Jauregian
“Hemen daukagun Lanbide
Heziketa Estatuko onena da”
Baina euskalduna ez den
bitartean euskal gizartearen-
tzat onena dela esan al daiteke?

Azken puntu hau ahaztu egiten
da.

Zoritzarrez hainbat tokitan,
Lanbide Heziketaz hitz egiten
denean, Euskal Herrian ez
bageunde bezala ari dira.
Horrela dela frogatzeko ikusi
besterik ez dago ondoren
emango ditugun datu beldurga-
rriak.

**“Lanbide
Heziketan urrats
inportanteak
eman dira. Baina
euskararik gabe
ezinezkoa da
kalitatea”**

Euskararen
alorrean Lanbide
Heziketa nola
dagoen azalduko
dugu datu zehatz
batzuen bitartez.
Iazko datuak dira.
Iturria: Euskal
Urtekarari Estatisti-
koa, Eustat 2003.

Euskal AE: Erdi-
mailako LOGSE LH orotara,
11.340 ikasle. A Modeloan
(erdaraz) 9.240 ikasle. B Mode-
loan (erdizka) 423 ikasle. D
Modeloan (euskaraz) 1.677
ikasle.

Goi-mailako LOGSE LH
orotara: 18.947 ikasle. A Mode-
loan 15.866 ikasle. B Modeloan
625. D Modeloan 2.456 ikasle.
Harritzekoa da nola ez den
gehiago plazaratzen daukagun
egoera tamalgarria agente
sozial eta alderdien aldetik.

Berrigara

ZUZENDARIA
Edu Mendibil
ERREDAKZIOA
Monika Belastegi,
Aintzane Irizar
MAKETAZIOA
Miren Almaraz

PUBLIZITATEA
Mireia Larrañaga
KOLABORATZAILEAK
Luis Mari Agirre
Juan Martin Elexpuru
Miguel Angel
Elkoroberezibar

LEGE-GORDAILUA
55-50/91
ISSN
1130-6599
TIRADA
5.900 ale

BERRIGARA / KONTUOLA / GOIBEKOKALE • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:

Irizar Jauregia • Barrenkalea 33
20570 BERGARA
Tel.: 943 76 03 97
Faxa: 943 76 29 77
Posta-e: berrigara@goiena.com

GUARDIAKO FARMAZIAK

EGUBAKOITZA, 28
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87
ZAPATUA, 29
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
DOMEKA, 30
GUALLAR, San Antonio 5. 943 76 11 05
ASTELEHENA, 1
ESTELLA, Matxiategi 5. 943 76 19 63
MARTITZENA, 2
MOZOS, Iparragirre 2. 943 76 12 15
EGUAZTENA, 3
CAMACHO, Oxirondo 4. 943 76 11 74
EGUENA, 4
ZABALA, Barrenkalea 25. 943 76 16 87

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIK
Anbulatorioa (txanda) 943 76 24 40
Bergarako Udaltzaingoa 943 77 91 06
Antzuolako Udaltzaingoa 943 76 62 46
Ertzaintza 943 76 53 40
Osasun etxea 943 76 24 40
Asepeyo 943 76 16 43
Pakea 943 76 13 49
Angiozarko medikua 943 78 90 27
Antzuolako medikua 943 76 62 23
Odol emaleak 943 76 16 24
Alkoholiko Anonimoak 943 76 51 06

GARRAIOAK
Taxiak 943 76 19 50

UDALA
Bergarako Udaletxea 943 77 91 00
Antzuolako Udaletxea 943 76 62 46
Udal Artxiboa 943 77 91 32
Igerilekuak 943 76 20 51
Kultura etxea 943 77 91 58
Liburutegia 943 77 91 62
Kiroldegia 943 76 56 41
Mizpirualde egoitza 943 76 13 68

BESTELAKOAK
Epaitegia 943 76 14 92
Erregistroa 943 76 13 15
Jardun 943 76 36 61
Idolaz 943 76 65 08
Erretiratuen etxea, Bergara 943 76 21 40
Antzuolako erretiratuen elk. 943 76 62 71
Postetxea 943 76 26 85
Bedelkar 943 76 04 68
Akulu AEK 943 76 05 18
Udal Euskaltegia 943 76 44 53
Bergarako notariotza 943 76 10 73

MEZAK

San Pedro	Labegarieta
Domekak:	Domekak: 11:00.
09:30, 12:30.	San Lorentzo
Zapatuak eta lanegunak:	Zapatuak: 20:00.
19:00.	Angiozar
Sierbak	Domekak: 11:30.
Lanegunak: 19:15.	Moja Zaharrak
Zapatuak:	Lanegunak: 09:00.
19:00.	Zapatuak: 11:00.
Domekak:	Mizpirualde
11:30, 13:00.	Lanegunak: 11:45.
Osintxu	Zapatuak: 17:30.
Domekak: 12:30.	Antzuola
Zapatuak: 19:00.	Domekak:
Elosu	09:00, 11:30.
Domekak: 10:30.	Zapatuak eta lanegunak: 19:30.
Ubera	Uzarraga
Domekak: 10:30.	Domekak: 10:00.
San Juan	Elgeta
Domekak: 11:00.	Lanegunak: 09:00.
Elorregi	Zapatuak: 19:30.
Domekak: 10:30.	Domekak: 12:00.
URTE-MEZAK	
Santa Marina	
Hileko bigarren domekan, 10:30ean eta 13:00etan.	
San Pedro	
Hileko hirugarren domekan, 09:30ean eta 12:30ean.	

OHARRAK

1934AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1934koen bazkaria azaroaren 29an Torrekua jatetxean. Izenematea Torrekua jatetxean (aurrez 12 euro).

1944AN JAIOTAKOEN AFARIA
1944koen afaria azaroaren 29an Azpeitxi jatetxean, 21:00etan. Izenematea: 943 76 23 70 (Sanchez) edo 943 76 13 61 (Mari Karmen Garitano).

1947AN JAIOTAKOEN AFARIA
1947koen afaria azaroaren 29an Tartufon. Izenematea (42 euro) Euskadiko Kutxan (0091 0990 19) hilaren 22ra arte.

1953AN JAIOTAKOEN AFARIA
1953koen afaria azaroaren 29an Zabalan. Izenematea Zabalan, Kiñun edo Irizar kaleko ONCEko postuan.

1957AN JAIOTAKOEN AFARIA
1957koen afaria azaroaren 29an Zumelagan. Frontoian elkartuko dira, 21:00etan. Izenematea Intxorta tabernan (aurrez 10 euro).

1933AN JAIOTAKOEN BAZKARIA
1933koen bazkaria azaroaren 30ean Azpeitxi jatetxean. Izenematea (aurrez 10 euro) Azpeitxin edo Intxorta tabernan.

1985EAN JAIOTAKOAK
1985ean jaiotakoen bazkaria abenduaren 24an. Data hurbildu ahala, bazkaria zein tokitan egingo duten zehaztuko dute.

ODOL ATERATZEA
Hurrengo odol ateratzea abenduaren 10ean izango da, Seminarioan, 18:30ean hasita.

JARDUNEN AGENDA

ASTE BUKAERAKO AGENDA
Txapligu taldekoek txantxa jolasak izango dituzte zapatuan Arrizurin, 16:00etan. Txiskrilabi taldekoak Udal Euskaltegian elkartuko dira ohiko ordutegian.

URBANOEN ORDUTEGIA

San Lorentzo / San Juandik irteerak
07:00, 07:40, 08:50, 09:40, 10:20, 11:00, 11:40, 12:20, 13:00, 13:30, 14:20, 16:00, 16:40, 17:20, 18:10, 19:00, 19:40, 20:20 eta 21:00.
GERALEKUAK: San Juan (Torunsa aurrean), Amillaga (Manso aurrean), San Lorentzo (Soraluze aurrean), Matxiategi (Mizpildiki okindegia), Zurra-dero, San Antonio (Zumelaga), Martoko gainean, Zubiaurre, Ozaeta (Brunet aurrean), Labegarieta (Ekonomatoan) eta Zabala jatetxea.

Labegarieta / Olabarrenetik irteerak
07:20, 07:35, 08:30 (Olatik), 09:20, 10:00, 10:40, 11:20, 12:00, 13:05, 13:20, 13:50 (Olatik), 14:30 (Olatik), 16:20, 17:00 (Olatik), 17:25, 17:40, 18:30, 19:20, 20:00 eta 20:40.
GERALEKUAK: Labegarieta, Ozaeta, Zubiaurre, Martoko, San Antonio, Espoloia (Mintegi), San Pedro, Arrurriaga (Konde), Zubieta, Muger-tza, San Lorentzo, Amillaga eta San Juan.

ORAINDELA 10 URTE BERRIGARAN


Uhola erreka bideratzeko lanak San Antonion

Antzuolatik datorren Uhola erreka Deba ibaiarekin bat egiten duen gunea uholdeetatik babesteko eta erreka bideratzeko lanak egitea onartu zuen udalbatzak. Lan horiek sei milioi eta erdi pezeta inguruko aurrekontua zuten. San Antonio inguruan uholdeak izan ziren aurretik.



BERTAKO BERRAK / Juan Martin Elexpuru

"Izarratu"



Zerua izarrez beteta.
—Atzo etxera etorri giñanian zerua izarratu zeuan.

GORKA ORTEGA

HAUGIROA!

MINIMOA
Eguaztena, 19 **0 °C**
MAXIMOA
Zapatua, 22 **18 °C**
ASTEKO EURIA (l/m²) **7 L**

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 19	16 °C	0 °C	- l/m²
Eguena, 20	17 °C	1 °C	- l/m²
Egubakoitza, 21	16 °C	3 °C	- l/m²
Zapatua, 22	18 °C	10 °C	1,9 l/m²
Domeka, 23	13 °C	12 °C	3,4 l/m²
Astelehena, 24	11 °C	7 °C	1,7 l/m²
Martitzena, 25	11 °C	2 °C	- l/m²


San Juan auzoan jasotako datuak

ASTEKO FILMAK

'CRUELDADE INTOLERABLE'

ZUZENDARIA: JOEL COHEN. AKTOREAK: GEORGE CLOONEY, CATHERINE ZETA-JONES.

HARIA. Miles Massey arrakasta handiko abokatua da. Lanarekin aspertuta, beste erronka bat onartuko du: emakume eder baten banantze kasua, hain zuzen.



TOKIA ETA ORDUA. Egubakoitzean, 22:30ean; zapatuan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean; domekan, 17:00etan, 19:30ean eta 22:15ean; astelehenean 19:30ean.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

'NOVIEMBRE'

ZUZENDARIA: ACHERO MAÑAS. AKTOREAK: OSCAR JAENADA, INGRID RUBIO.

HARIA. El bola arrakastatsua ondoz, Achero Mañasek kale antzerkia egiten duen talde baten inguruko gorabeherak aurkezten dizkigu. Alfredok idealismo handia du eta arte libreagoa egitea erabaki du, bihotzarekin egin dakoa. Donostiako Zinemaldian era guztietako kritikak jasozituen filmak.

TOKIA ETA ORDUA. Zinekluban. Eguztuetan, hilaren 4an, 20:00etan.

PUNTUAZIOA: ●●●●●

JOXAN ARRAINDEGIA



Ibargarai 24. Bergara. Tf. 943 76 70 29

Aldoka Maldoka

TABERNA

Kruz Gallastegi BERGARA

AUZOAK/ Bederatzi dira alkatea duten auzoak eta zortzitan aukeraketa eginda dago; Osintxun oraindik ez dute erabakirik hartu

Auzoetan ere aukeratu dituzte datozen lau urteetarako auzo alkate izango direnak

MONIKA BELASTEGI

Udal hauteskunde ondoan, auzoetarako Udal ordezkariak ere aukeratu dituzte. Ohituraz auzo alkate deitu izan diegu, eta izendapen berrietan berrietarik dago: batzuek errepikatu egiten dute kargua eta beste batzuk, berriz, estreinatu egiten dira.

Auzo alkatea da Udalak auzo bakoitzeko duen ordezkaria. Karguak agintaldi osoa irauten du, hau da lau urte, eta hauek dira bere erregimetakoz batzuk: auzoaren ordezkaria da behar den lekuan, Udalaren aurrean auzoaren arazoak azaldu eta defendatu behar ditu, eta baita Udalaren erabakia auzora eramane ere.

Bergarako alkatea da auzo alkateak izendatzen dituenak, beti ere, auzoak egindako proposamenen oinarrituta. Hala, Victoriano Gallastegi alkateak, auzo bakoitzak egiten dion proposamenari zain egoten da, eta horietatik hartzen du aintzat ondoren auzo alkate izendatzeko.

Herrian bederatzi auzo alkate ditugu: Elosun, Murinondon, Uberan, San Juanen, Aldai-egian, Angiozarren, Basalgon, Elorregin eta Osintxun. Hala eta guztiz ere, Osintxuren kasuan oraindik erabakitzeko dago zein izango den auzo alkatea, auzoak ez baitu izenik proposatu.

AUZOETAN NOLA AUKERATZEN DUTE HAUTAGAIA ?

Auzo bakoitzak bere modua du aukeratzeko. eramango duten izenak proposamena erabakitzeko erabakia hartzen da, auzoko burbaitek bere burua aurkeztea, eta halaxe izan da hainbat auzoetan.

Baina bada auzo alkatea aukeratzeko beste modurik ere. Angiozarren, hauteskundeak egiten dituzte. Balio legalik ez dute hauteskundeok, baina aspalditik datorren usadioari jarraipena eman nahi izateko diote Angiozarko auzotarrek. Izan ere, 1977an egin zituzten lehen hauteskundeak, Angiozarko bailarako batzarra eta auzo alkatea aukeratzeko. Irailean egin zituzten hauteskundeak eta botoa emateko aukera zuten 264 lagunetatik 200ek eman zuten. Hauteskundeetan auzo alkatea eta auzoko batzarra osatuko duten kideak aukeratzeko dituzte: 17 batzarkide, eta alkatea 18.a da.

Bozketan ondoren, alkatea eta batzarkideak aurkezteko ekitaldi berezia egiten dute. San Migel jaietan izan zen, eta han hartu zuten kargua batzarkideek eta baita alkateak ere, bere karguari dagozkion sinboloak -Makila eta Herriko dokumentuak- eskuan hartuta.



San Migel jaietan hartu zuten kargua auzo alkateek eta Batzarreko kideek San Migeleko elizpean egindako ekitaldian.

OLAIA MONDRAGON

Auzo alkateak




ELOSU
IGOR ORUESAGASTI
• Elosun jaio baina kalean bizi da
• 30 urte
• Igeltseroa
• Lehenengoz auzo alkate
• Beharrik nabarmenenak auzoan: ura etxe guztietara heltzea eta baserrietarako bideak egokitzea.



ANGIOZAR
MILA ELORTZA
• Kalean bizi da Angiozarren
• 40 urte
• Auzoko liburutegiko arduraduna
• Bigarren agintaldia du hau
• Beharrik nabarmenenak auzoan: zerbitzu arloa: komertzioak eta gizarte arloko etxe bat, batik bat.



UBERA
JESUS MARI ELORTZA
• Etxano etxea
• 43 urte
• Metalgintza
• Lehenengoz auzo alkate
• Beharrik nabarmenenak auzoan: Urkuluko ura baserrietara eramatea eta kalea txukuntzea.




SAN JUAN
JUAN MARI ARANA
• Olariaga etxea
• 51 urte
• Aparejadorea
• Hirugarren agintaldia du hau
• Beharrik nabarmenenak auzoan: Orain momentuan ez dago behar handirik San Juanen.



BASALGO
JESUS IZTUETA
• Gallastegi baserrikoa
• 66 urte
• Erretiratua
• Bigarren agintaldia du hau
• Beharrik nabarmenenak auzoan: frontoia egokitze lanak bukatzea, ura sartzen da-eta.



ELORREGI
JESUS MARI OSA
• Aldazpe baserrikoa
• 51 urte
• Mekanikoa
• Bigarren agintaldia du hau
• Beharrik nabarmenenak auzoan: baserrietarako pistak eta bidegorria konpontzea.



MURINONDO
JUAN JOSE GABILONDO
• Etxelai baserrikoa
• 60 urte
• Erretiratua
• Bigarren agintaldia du hau
• Beharrik nabarmenenak auzoan: kolektorearen lanak direla eta, beheko errepidea egokitzea.



ALDAI-EGIA
ALEX ALBERDI
• Aldai Azpikoa baserrikoa
• 37 urte
• Langilea
• Lehenengoz auzo alkate
• Beharrik nabarmenenak auzoan: baserri guztietara edateko ura eramatea eta plaza konpontzea.



Benito Lertxundi orjotarrak euskal kulturaren arloan egindako lan guztia goraiatu nahi dute Gure Ametsa elkarteak.

OMENALDIA/ Abenduaren 18an, hitzaldia eta afaria egongo dira elkartearen abeslariarekin

Gure Ametsak Benito Lertxundi omenduko du

EDU MENDIBIL

San Antonioko Gure Ametsa elkarteak Benito Lertxundi omenduko du. Kantariak euskal kulturaren alde egindako lana goraiatu nahi dute elkartekok. Horrez gain, Serafin Esnaola Jaiotza Eramangarrien Lehiaketa ere deitu dute Gure Ametsakok.

Gure Ametsa elkarteak Benito Lertxundi kantaria eta musikaria omenduko du datorren abenduaren 18an. Abeslari orjotarrak euskal kulturaren alde egindako lanagatik omendu nahi izan dio-

te Gure Ametsakok. Esan bezala, datorren abenduan izango da omenaldia San Antonioko elkartean.

Lehenbizi, Benito Lertxundirekin elkarrizketa-hitzaldia egongo da 20:15ean eta ondoren, 21:15ean, afaria. Afarira joateko interesa dutenek Gure Ametsan bertan edo 943 76 10 25 (Patxi Uribealzo) telefonoan eman dezakete izena. Plaza mugatuak dira.

JAIOTZA ERAMANGARRIEN LEHIAKETA
Bestalde, Gure Ametsako kultur batzordeak II. Serafin Esnaola Jaiotza Eramangarrien Lehiaketa deitu du. Serafin Esnaola zenaren omenez antolatutako

jaiotza lehiaketa haur, gazte eta nagusiei zuzenduta dago.

Hainbat urtez lehiaketa antolatzeke egon eta gero, iaz berriz ekin eta Serafin Esnaola izena eman zioten lehiaketari.

Jaiotza eramangarriok, alde bakoitzean, 30-80 cm. bitarteko oinarri sendoan egindakoak izan behar dira eta Gure Ametsan aurkeztu beharko dira abenduaren 20an, 11:00etan, han ikusgai izango direlarik. Bi kategoria bereiztuko dira: 13 urtetik 17 urtera artekoak eta 18 urtetik aurrekoak. Kategoria bakoitzeko onenak egunean bertan sarituko dituzte, Napar Feriako programazioaren barruan.

Errekonozimendua Miguel Altunari

Miguel Altuna institutuak errekonozimendua jaso du *bost esek* deritzon metodologia ikastetxean ezartzeagatik. Errekonozimendua IX. Kalitatearen Europako Astean jaso du, erkidegoko beste lau enpresarekin batera.

Bost esek Japoniatik datorren metodologia da eta s bakoitza urrats bati dagokio: antolaketa, ordena, garbitasuna, ikus kontrolak eta diziplina eta kontrolak, hain justu. Guztiak ezarri eta horien arabera jarduten dute eskolako ikasle eta irakasleek.

Udalaren jarrera salatzeke ekitaldiak antolatu ditu BAK

M.B.

Udala demokratiza daigun lelopean hainbat mobilizazio antolatu ditu Bergara Aurrera taldeak astebururako. "Udalaren jarrera ez demokratikoa" salatzeke sinadura bilketa egingo dute, besteak beste.

Herritarren %20,30ek Udalean ordezkari politikorik gabe jarraitzen dutela gogorarazi du BAK prentsa ohar baten bidez. Taldeak dioenez, hauteskunderen lehenengo *putxerazoa* gertatu bazen, ondoren, Udalean, bigarrena gertatu da; izan ere, "Aralar alderdiak izan ezik, gainerako alderdiek ezer gertatu ez balitz bezala gure karguak bahitu dituzte". Gainera, Udal gobernuak konponbiderako bide guztiak moztu egin dituela azaltzen dute; BAK egindako proposamenak atzera bota dituztela gehitzen dute, eta eurek ez dutela inongo proposamenik egin (Aralarrek izan ezik).

Herrian arazo larria dagoela diote: "Udal ez demokratikoa". Eta egoera horrek konponbidea behar duela gehitzen dute. Horretarako, alderdikeriak alde batera laga eta alderdi guztiak zerbait egin behar dutela gehitzen dute: "Karguak entregatu eta BAKo zinegotzien eskubideak nola bermatu asmatu", hain justu.

EGOERA SALATZEKO EKITALDIAK

Egoera salatzeke, hainbat ekitaldi antolatu dituzte asteburu-

rako. Bihar, zapatua, idatzia aurkeztuko dute udaletxean, herritar bezala dituzten eskubideen defentsan oinarrituta. Eta horrekin batera, sinadura bilketa bat ere hasiko dute. Elkarretaratzea ere deitu dute, San Martin plazan, 12:00etatik 14:00etara, *Udala demokratiza daigun* lelopean.

Azkenik, etzi, domeka, beste elkarretaratze bat egingo dute eta sinadura bilketarekin jarraituko dute, 19:00etatik 20:30era, San Martin plazan.

IKA-MIKAK OSOKO BILKURAN

Asteleheneko osoko bilkuran ikamika izan zen Bergara Aurrerako kideen eta Victoriano Gallastegi alkatearen artean. BAKo kideek hitza eskatuta zeukaten gaitzerrendako azkeneko punturako, hau da, eskaera eta galderen atalerako. Izan ere, euren egoeraren gainean galdetzeaz gain, hiru mozio aurkeztuta zituzten Udalean. Baina azkeneko puntu horretara iristean, amaitutzat eman zuen alkateak bilkura. Gallastegiren esanetan, bilkuran parte hartzeke egin behar den eskaera orrian ez zuten BAKo kideek pertsona fisiko baten izenik ipini, taldearena baizik, eta ondorioz berak ez zekien nori eman behar zion hitza. Alkateak gehitu zuen orain arte erregelamenduak dioena zuzen jarraitu dutela BAKoek, eta badakitela honelako gauzek nola funtzionatzen duten. BAKoek uste dute Udala ez demokratikoa beste adibide bat besterik ez dela.



Herritarren %20,3 ordezkari politikorik gabe daudela salatu du BAK.



LABUR

Paulo Elkoro Alcalara eraman dute eta Mikel Garaiondo Soto del Real espetxean dago

Abenduaren 5ean Alemaniatik estraditatu zutenetik hona Soto del Real espetxean egon den arren, Askatasunak aditzera eman duenez, Alcalá espetxera eraman zuten aurreko asteburuan Paulo Elkoro bergararra. Bestalde, Mikel Garaiondo osintxuarra Soto del Real espetxera eraman dutela gehitu dute iturri berek. Eguenean atxilotu zutenetik hona inkomunikazioan egondako denboran tratatu txarrak jasan dituela gehitu dute.



Sarrerako egurrezko atea XVI. mendekoa da eta dituen tailak balio handikoak dira.

ARTXIBOA

BIRGINTZA/ Atearen zaharberritzeari dagokion kopurua atera dute aurrekontutik

Udalak txikitu egin du Arostegi etxeko aurrekontua

Udalak txikitu egin du Arostegi etxean erakusketa aretoa egiteko dagoen proiektuaren aurrekontua. Kendu duten diru kopurua sarrerarako atearen berrikuntzari dagokio. Birgintza aditu bati aparte esleitzea erabaki dute atearen balio historiko-artistikoa dela-eta.

Atearen 17an onartu zuen udalbatzak Arostegi etxean erakusketa aretoa egokitzeko proiektua. Behe solairuak 179 metro koadro inguru ditu, eta horietatik 155 inguru erakusketa aretoari dagozkio. Horrez gain, sotoa ere badu aretoak. Hor, bi biltegi, komunak eta aire girotuaren gela ere egongo dira.

Horrez gain, proiektu berak sarrerako ate nagusia zaharberritzea jasotzen du. Hori guztia

Atearen zaharberritzea atera dute aurrekontutik; aditu bati aparte esleituko diote

egiteko, 332.983 euroko aurrekontua onartu zuten.

Baina asteleheneko osoko bilkuran aldaketa bat egin zion udalbatzak kopuru horri. Izan ere, sarrerako ate nagusiaren zaharberritzea aditu bati, aparte esleitzea egokiagoa dela iritzi dio udalbatzak, batik bat, daukan balio historiko-artistikoa kontuan izanda.

Hori horrela, Udalak mantendu egingo du hilaren 17ko bilkuran onartu zuen 332.983 euro-

ko aurrekontua, baina aretoa egokitzeari 299.441 euro baino ez dizkio eskainiko. Atearen zaharberritzea aparte esleituko dute.

ATEA, ERAKUSKETA ARETOKO ELEMENTU EGONKOR BIHURTUKO DA
Atea berritzen dutenean bere tokira bueltatu beharrean, erakusketa aretoan sartuko dute, erakusketarako elementu egonkor gisa. Izan ere, atea dituen tailen interesa kontuan izanda, ez dute hondatzerik nahi. Atea XVI. mendekoa da, eta dituen tailak Estatuko onenatarikoak dira. Hainbat urtez, San Telmo museoan egon zen atea, Udalak herri-erakari zuen arte.

Bestalde, atea horren ordez jarriko dutena altzairuz eta egurrez egindakoa izango da.

Erakusketa aretoa egokitzeko lanei dagokionez, atera ditu dagoeneko Udalak lehiaketara.

Bedelkarrek musikaz jantziko dituzte abenduko egubakoitzak

M.B.

Aurreko urteetan bezala, abenduko egubakoitzetan kaleak alaitzeko musika saioak antolatu ditu Bedelkarrek, herriko dendarien, ostalarien eta zerbitzuen elkarrekin.

Musika saiook herriko kaleetan barrena izango dira, 18:30etik 20:30era bitartean. Datorren egubakoitzean, abenduaren 5ean, izango da lehenengoa eta Musika Eskolako klarinete taldeak jardungo du kaleak alaitzen; abenduaren 12an, Musika Eskolako

txistu taldea ibiliko da kalez kale; abenduaren 19an, Musika Eskolako trikitixa taldeak jardungo du, eta 26an, berriz, Musika Eskolako saxofoi taldeak.

GABONETAKO ZOZKETA

Gabonetako zozketa ere kalera-itu du Bedelkarrek. Lehenengo saria 1.000 eurokoa da eta horrez gain, 500 euroko beste lau sari ere egongo dira. Bedelkarreko dendetan erosketa eginda lortu ahal izango dira zozketarako zenbakiak. Zozketa eguna 2004ko urtarilaren 8a izango da.



Abenduko egubakoitzetan musika egongo da kaleak alaitzeko.

ARTXIBOA

LABUR

Abenduaren 4tik 7ra bitartean ezingo dira aldageletako dutxak erabili kiroldegian

Uraren galdara aldatu behar dutela-eta, ezingo dira erabili aldageletako dutxak Labegarrietako kiroldegian. Abenduaren 4tik 7ra bitartean izango da hori, biak barne.

Kiroldegiko gainerako zerbitzuak erabilgarri egongo dira hurbiltzen direnendako.

Gotzon Garate hizkuntzalariak hitzaldia egingo du eguenean kultura etxean

Gotzon Garate Elgoibarko idazle eta hizkuntzalariaren hitzaldia kultura etxean izango da, 19:00etan. Honako gaia jorratuko du: *Euskaraz egiten diren hutsak egunotan eta esamoldeak*. Besteak beste, Filosofian doktorea da, Teologian eta Filologia Erromaniakoan lizentziaduna eta Euskal Literaturan katedraduna. Bestalde, 1978an Euskal Filologia sortu zuen Deustuko Unibertsitatean.



ESKAINTZA!

TFT 14" XGA pantaila
GB 1 arte handitu daitekeen RAM memoria.
64 MB SMA arteko bideo kontrolatzailea.
128 bit 2D/3D bizkortzailea
Dual View Display
1xPCMCIA Tipo II, 1xmini-pci
Barnean 2 bozgorailu eta mikrofono bat.
Irda, Modema 56K eta Lan 10/100
2,9 kg-tako pisua (bateriarik gabe)
308x254x37,5 mm

Celeron P4 2.4 GHz - 256 Mb RAM HD 20 Gb COMBO
1.059 euro (Beza barne)

Pentium 4 2.0 GHz - 256 Mb RAM HD 20 Gb COMBO
1.119 euro (Beza barne)

Artekalea 11, behea
BERGARA
Tel./Faxa: 943 76 30 57
E-posta:
idelta@teletel.es

Eta gainera: Etxez-etxeko zerbitzu teknikoak, ordenagailuak, inprimagailuak, eskanerrak, kartutxoak...



Silvestre Muñoz, s.l.
pinturak

610 25 99 82
610 25 40 37
943 76 24 11
Amillaga 1, 10 pabilioia.
20570 BERGARA

Pintura-lanak orokorrean
•
Pintura industrialia
•
Zoru arinak: sintasolak, moketak...



ESKOZIAKO BERGARAR KOADRILA

Eskozian, Glasgoven, den bergarar koadrilak Kepa Mendibilen doktoretza ospatu zuen martitzenean, hilak 24. Kepak lau urtetan bukatu du ingeniari doktoretza Eskozian eta astelehenean "Viva" izeneko azken proba gainditu zuen. Martitzenean, Keparen lankideek, Bergarako lagunek eta beste hainbat euskaldunek, lagunarteko afaria egin zuten. Unai Lopezek bidali digun argazkian Waxy Connors izeneko pub famatuan ikus dezakezue Eskozian dabilen bergarar "klan" a. Bestalde, Unai esan digunez, han diren euskaldunak Glasgoweko Basque Society edo euskal elkarte sortzekotan dira. Dagoeneko Londreseko Euskal Etxearekin harremanetan jarri dira baita Cambridge eta Edinburgoko antzeko beste euskal elkarteekin. Beraien asmoa Glasgow inguruko euskaldunak batuko dituen elkarte sortzea da. Ea ba!

REMENTERIA Altzariak

Egongelak
Logelak
Aukera guztiak
Enkarguan

Artekalea, 6
BERGARA
943 76 13 29

Kabutzia

ARRAINDEGIA

Fraiskozuri 6
BERGARA
Tf. 943 76 56 62

FRONTOI



TABERNA

Fraiskozuri z/g.
BERGARA
943 76 05 09

SANTOS



Etxetresna elektrikoak
eta argiztapena

Masterreka 2. BERGARA
Tf. 943 76 26 10



SAN MARTINEZKO KAZETARI GAZTETXOAK

Joan zen ostiralean San Martin ikastetxeko 3. mailako ikasleak bisitari izan genituen BERRIGARAKO erredakzioan. Susana Uriarte eta Jose Luis Carnicero irakasleen laguntzaz, 25 bat ikasle etorri ziren. Komunikabideak aztertzen dihardute eskola eta BERRIGARA nola egiten den ikustera etorri ziren. Kazetari kuxkuxeroen antzera, galdera mordo egin ziguten eta apunteak hartu zituzten zintzo-zintzo. Ea laster aldizkaritxoren bat kaleratzen duten...

GARRAIOAK ANDUZU TRANSPORTES

BERGARA
607 349 043



Grua zerbitzua


Zerbitzu publikoa eta
era guztietako kargak

UREDERRA ITURGINTZA

Iturgintza
Berogintza
Aire egokitua
Konponketa
Salmenta

Arruriaga 11
686 943 918

INGAINARITIRAKA



Florita Izuskiza

OILAGORRAKO TABERNARI OHIA

Floritaren aitak, Felipek, zabaldu zuen Oilagorra taberna 1935eko uztailaren 18an. Txikitatik tabernan lanean ibili da Florita, 1990 aldera erretiratu zen arte. Aurten 50 urte egin ditu ezkontuta: hiru seme-alaba eta lau iloba dauzka.

Zergatik Oilagorra izena?

Gure aita ehiztari amorratua zen, eta hortik izena.

Taberna faltan sumatzen duzu?

Lehenengotan bai, baina orain beti esaten dut: "Mila duro eskura daukazun bitartean...". Pozik bizi naiz, sekula baino hobeto. Tabernan lanean zeundeneko oroitzapenik onena?

Akordatzan naiz aspaldiko jai batzuetan, Pazkoetan, taberna itxi eta orduan egindako dantzekin...

Orain dela 50 urte-edo taberna bakarrik gizonen kontua zen?

Bai, kaleko jendeaz gain, gurera baserritar asko etortzen ziren, Oberakoak, Angiozarkoak... Emakume gutxi etortzen zen.

Erretiroaren gauzarik onena?

Bizi osoan ez dut apenas oporrik izan, eta orain, lehen egiten ez nituen gauzak egiteko tartea daukat.

Urtaro gogokoena?

Ulaberria, loreak ere orduan pizten dira-eta.

Jantzi bat? Kolore bat?

Prakak, eroso janztea atsegin dut. Kolorea, urdina.

Liburu bat/Film bat/Musika talde bat edo kantari bat?

La arboleda (Toti Martinez de Lezea)/La pelota vasca/Denetik entzuten dut: euskal kantuak, rancherak...

Irratia ala telebista?

Irratia. Iluntzera arte ez dut telebista pizten. Normalean Loiola Irratia entzuten dut, Radio Euskadi ere bai batzuetan...

Bertsolaririk gustukoena?

Egaña, Lizaso, Maialen bera...

Gustuko janari eta edari bana?

Angulak (denbora baten askotan jaten genuen) eta ehiza; basurtea, esate baterako. Edateko, berriz, urteko ardo beltza.

Euskal Herriko toki bat?

Hainbeste daude... Lizarra, Urbasa, Bizkaiko txoko asko...

Loterian milioi bat euro irabaziko bazenitu?

Seme-alaben artean banatu. Hala ere, dena ez nuke emango, e?

Era nora egingo zenuke bidaia bat?

Argentinara, han senideak dauzkat-eta.

EDU MENDIBIL

KANPOTARRAKBERGARAN

UDO FROSCH

45 URTE / ALEMANA / ORAIN DELA 15 URTE ETORRI ZEN BERGARARA BIZI IZATERA

"Alemaniak eta Euskal Herriak antzeko bizi kalitatea daukate, eta ondo moldatu naiz"

EDU MENDIBIL

Udo Frosch Alemaniako Duisburg hirian jaiotako da, eta orain dela 15 urte etorri zen Bergarara bizi izatera. Euskal Herrira etorri aurretik Krupp altzairu enpresan lan egin zuen eta soldadutzara joan eta gero Duisburgeko ikatz-mehatzetan jardun zuen: "Westfaliako iparralde Alemaniako zona industrialena da, Alemaniako bihotza, nolabait esatearren. Enpresa oso handiak dira han eta, esate baterako, Krupp altzairu enpresan, Duisburgen, 20.000 langile inguru ginen".


Bergarara etorri zenean ez zuen arazorik izan lana topatzeko, eta laster 14 urte egingo ditu Iraundi enpresan lanean. Hemen go bizimodura ondo moldatu dela diosku Udok: "Hemengo bizimodua atsegin dut, eta gustura nago Bergaran. Jendeak ondo hartu

"Duisburg eta halako hiri handiak hotzegiak dira; nahiago ditut herri txikiak"

nau, eta hori oso garrantzitsua da beste herrialde baten bizimodura moldatu ahal izateko. Alemaniak eta Euskal Herriak antzeko bizi kalitatea daukate, eta ez dut inolako arazorik izan. Ondo bizi naiz, eta hemengo jendea, kultura, paisaia atsegin ditut".

Duisburg bere jaioterria hiri handia da, 550.000 biztanle ingurukoa, eta Bergarara etorri zenean, herri txikia izanik, aldaketa onerako izan dela dio Udok: "Hiri handiak hotzegiak iruditzen zaizkit. Pobrezia handia ikusten da

Duisburg eta halako hiri handietan. Nahiago ditut herri txikiak edo tamaina ertainekoak. Azken baten, Bergaran kalera irtenda, edonorekin has daiteke berbetan; izan ere, ia guztiok ezagutzen dugu elkar. Eta eskapada-



txoak egiteko oso gertu daude Gasteiz, Bilbo eta Donostia. Donostia gustatzen zait gehien, aste bukaera askotan joaten gara bueltatxo bat ematera. Bizkaia ere izugarri gustatzen zait, txoko ederrak daude han".

Leire Miner bergararrekin bizi da Udo, eta gehienetan emaztearen familiartekoekin eta lagunekin irteten dira. Aste buketan lasai ibiltzea dute gustuko. Astean zehar, lanetik irtendakoa, herrian paseoak ematea ere gustuko du Udok: "Bergara inguruan paseatzea gauza ederra da. Goizez lanean banabil, arratsaldean buelta bat emateko aprobetxatzen dugu emazteak eta biok".

Hala ere, taila egitea da Udoren zaletasun handienetakoa. Bergarara etorri zenean hasi zen bere kabuz egurra lantzen ikasten, eta izugarri gustatzen zaio la diosku: "Altzarien berritzea, egur taila eta eskulturak egiten ditut eta egunero joaten naiz Zabalotegin daukagun lokalera. Celestino Vicentek eta biok lokal berean dihardugu, eta asko gozaten dut egurra lantzen. Hogei bat tailagile gaude Zabalotegin, eta ea jende berria etortzen den..., ni neu naiz-eta gazteena. Atera kontuak!".

Alemaniara gutxiago joaten da orain, duela lau urte ama hil zitzaionetik: "Ama izan da zuhaitzaren enborra eta hura falta denetik gutxiago elkartzen gara anai-arrebok. Zortzi anai-arreba gara, ni seigarrena. Hala ere, harremanari eusten diogu, askotan deitzen dut Alemaniara. Lagunekin-eta, berriz, adin batetik aurrera zailagoa da harremanari eustea, nork bere bizimodua daukalako".

Bestalde, Bergaran bizi denetik, pilotazale amorratua dugu Udo: "Telebistatik ikusten ditut partiduetan, eta asko gozaten dut. Kirol ederra da pilota". Lau t'erdiko txapelketarako badu faborito bat: "Titin. Bera da onena. Ez dut uste txapelak ihes egingo dionik".

BOLINTXO

Mendiko oinetakoen hamabostaldia

%30eko deskontua

Ibargarai 10 Tel.: 943 76 38 32



EL CARMEN

GARBIKETA ZERBITZUAK

Lantegien garbiketa eta mantenimendua
Banketxe, Ikastetxe eta Bulego Kontserbazioak
Moketa garbiketak
Garajeen garbiketa eta mantenimendua

Zubieta 28 - Tel.: 943 76 56 15 Faxa: 943 76 73 39
20570 BERGARA - Sakelakoa: 609 16 33 23



NAGORE INURRATEGI

Roberto Zurro 02:37:15 denbora egin zuen Donostiako maratoian, orain arteko bere markarik onena.



NAGORE INURRATEGI

Javier Moreno eta Javier Garcia bergarrek hiru orduetik beherako marka egin zuten domekan.

ATLETISMOA

Iaz bezala, Roberto Zurro izan zen herriko onena Donostiako Maratoian

Bergarako 16 korrikalarik amaitu zuten proba eta horietako bost hiru orduetik beherako marka egiteko gauza izan ziren

E.M.

Begarako 16 korrikalarik amaitu zuten domekan jokatu-tako Donostiako Maratoia. Berrito ere Roberto Zurro izan zen herriko onena, bi ordu, 37 minutu eta 15 segundorekin. Berarekin batera Bergarako beste lau lagunek hiru orduetik beherako marka egin zuten.

Guztira, 2.400 korrikalarik eman zuten izena Donostiako Maratoian parte hartzeko. Maratoia- ren 26. ekitaldia izan zen eta Peter Korir kenyarrak irabazi zuen, 02:10:46 denborarekin. Ezin izan zuen, beraz, Cherigat herrikidea- ak iaz ezarritako marka (02:09:34) hautsi. Lehen hirurak kenyarrak izan ziren domekan eta lehen eus-

kalduna Asier Cuevas eibartarra izan zen, laugarren tokian (02:17:34). Emakumezkoetan, berriz, Remedios Alonso kantabriarra nagusitu zen, 02:45:04 markarekin.

BERGARAKO 16 TXAPELDUN

Iaz Bergarako 20 lagunek amaitu zuten maratoia eta aurten herriko 16 korrikalari iritsi dira helmugara, 42,195 kilometro egin ondoren. Guztiak dira txapelkun, zalantzarik ez. Azken hiru urteotan moduan, Roberto Zurro izan zen Bergarako onena, 31. postuan, 02:37:15 markarekin. Robertok zera esan digu: "Gustura korritu nuen domekan. Nire zortzigarren maratoia izan da, eta badakit zein erritmora joan naitkeen. Pultsometroa erabiltzen

dut lasterketan eta lehen 20 kilometroetan 168-170 pultsaziotan ibiltzen naiz. Erditik aurrera, berriz, erritmo biziagoan korritzen dut eta azken 10 kilometroak guztia emanez egiten ditut. Nire markarik onena egin dut aurten, eta ea datorren urtean jais-terik daukadan...".

Nabarmentzekoa da baita Bixente Pagaldaik egindakoa ere. Angiozartarra Donostiako Maratoia- ren ekitaldi guztiak amaitu ditu eta domekan 460. postuan sailkatu zen, 03:08:05 markarekin. Urtetan gora egin arren, sasoi betean da Bixente. Joan zen urtean baino marka hobea egin zuen, iaz 03:21:53ko denbora egin zuen-eta. Hala ere, ekitaldi guztiak amaitzea da Bixenteri inork hautsiko ez dion marka.

Begararrak Donostiako Maratoian

Postua	Izen-abizenak	Denbora
31	Roberto Zurro Usabiaga	02:37:15
168	Javier García Alberdi	02:53:29
177	Basilio Aranburu Mujika	02:54:06
179	Javier Moreno Castelo	02:54:18
261	Javier Ibarra Moñux	02:58:38
401	Miguel Angel Aranes Usandizaga	03:05:15
460	Bixente Pagaldai Garitano	03:08:05
498	Iñaki Mujika Goikoetxea	03:09:48
596	Jon Aranzabal Ezpeleta	03:13:19
663	Joaquin Gonzalez Martinez	03:15:56
806	Jesus Diaz Roman	03:21:13
965	Alex Familiar Etxeberria	03:27:56
1.025	Iker Herran	03:29:50
1.278	Aitor Eraña Arroiabe	03:40:44
1.393	Arkaitz Mendizabal Gorrotxategi	03:46:03
1.641	Manu Larrea Arana	04:00:39

Euskadiko Karate Txapelketa domekan kiroldegian

E.M.


Etzi, domeka, Euskadiko Karate Txapelketa jokatu da Labe- garaietako kiroldegian, 10:30ean hasita. Kadete eta junior mailetak karatekak (neskak zein mutilak) izango dira lehian, ehun bat guztira.

Shotokan taldeko Josean Iñarra entrenatzaileak esan digunez, "Euskadiko txapelketa Bergarara ekartzea gauza handia izan da. Ea zaleak kiroldegira hurbiltzen diren domekan".

GIPUZKOAKO TXAPELKETA BIKAIN

Shotokan taldekoek emaitza bikainak lortu zituzten Irunen jokatu-tako Gipuzkoako Txa-

pelketan. Kadete mailan Bergarako lau lagun lehiatu ziren: 75 kilotik azpikoetan, kumite- tan, Markel Larrañaga bigarren sailkatu zen eta katetan, berriz, lehen postua eskuratu zuen; 60 kilotik azpikoetan, Unai Zabarte onena izan zen kumitetan eta katetan laugarren postuan sailkatu zen; Miren Laskurainek hirugarren postua eskuratu zuen katetan eta Raquel Blanco laugarrena izan zen katetan. Aipatutakoez gain, Jon Gonzalez ere parte hartuko du domekan Euskadiko Txapelketan. Iñarraren arabera, Raquel Blancok eta Euskadiko Sele- kzioan diharduen Markel Larrañagak dute dominaren bat lortzeko aukera handien.



Shotokan taldekoek emaitza bikainak lortu zituzten Gipuzkoako Txapelketan, azaroaren 9an, Irunen.



Gorka Larrañagak zuzentzen duen infantil mailako taldeak lau partidu irabazi ditu, hiru berdindu eta bakarra galdu.

FUTBOLA

Bergara-Arrasate infantil mailako derbia domeka goizean Ipintzan

Bergararrek partidu bakarria galdu dute orain arte, Arrasateren aurka, hain zuzen

Bergara KEko infantil mailako futbol taldeak Arrasate hartuko du domekan, azaroak 30, Ipintzan, 11:00etan. Arrasatearrek eta mahoneroak igoera liserako sailkatzeko lehian dira.

Bergara KEko infantil taldeak partidu bakarria galdu du orain arte, Arrasateren aurka, hain zuzen, lehen itzulian, 2-1. Momentuan sailkapeneko hirugarren lekuan dago Bergara, Arrasate eta Anaitasuna liderrengandik gutxi puntura. Beraz, domekako partiduak berebiziko garrantzia dauka, sailkapeneko lehen biak sailkatuko baitira ohorezko ligara igoetzeko fasea jokatzeko. Aurreko astean Bergarak atsedena izan


Arrasate, Anaitasuna eta Bergara igoera fasea jokatzeko lehian bizian dira

zuen, eta Gorka Larrañaga taldeko entrenatzailea baikor da domekako partiduari begira: "Igoera fasea jokatu nahi badugu, ezinbestekoa da Arrasateri irabaztea. Ea taldeak bere onena ematen duen eta zaleen laguntza dugun. Horrelako partiduetan eskertzen dira zaleen animuak. Partidu polita ikusteko aukera izango dute Ipintzara joaten direnek". Etxean jokatzeko azken

partiduan, Bergarak 9-1 irabazi zion Eibar taldeari. Aitor Oregik (3 gol), Markel Elkororibek (3), Jon Linazisorok (2) eta Gabriel Guerrak egin zituzten etxeko golak.

BI PARTIDU ZAPATUAN
Bihar, zapatua, bi partidu jokatu dira Ipintzan: ohorezko mailako gazte taldeak Urolaren aurka jokatu du, 16:00etan, eta ondoren, lehen kadete mailan, Bergara eta Eibartarrak izango dira aurrez aurre, 17:45ean hasita.
Bestalde, preferente mailako Bergara futbol taldeak Aretxabaletaren aurkako derbia jokatu du domekan, Ibarra futbol zelaietan, 16:30ean. GOITBk partidua eskainiko du domekan bertan, 19:30ean.

FOTOKIROLA



Azoka txikia zabalik Pol-Polen

Pol-Pol Mendizale Taldearen azoka txikira hurreratzeko azken eguna izango duzue bihar, zapatua. Asteazken zehar bigarren eskuko mendiko materiala jarri dute salgai eta jende dezente joan da Pol-Poleko lokalera. Gaur, egubakoitza, 19:00etatik 20:30era izango da zabalik eta bihar, zapatua, 18:00etatik 20:00etara. Esan bezala, mendiko eta eskiko material ugari prezio onean eskuratzeko aukera dago.

Bergara-Deustua eskubalo partidua bihar kiroldegian

E.M.
Bergara KEko senior mailako mutilen taldeak Loiola Deustua-ren aurka jokatu du bihar, zapatua, Labegaraietako kiroldegian, 18:30ean. Bizkaitarrak Bergarakoen aurkari zuzenak dira Euskadiko Ligan jarraitzeko lehian: mahoneroak sailkapeneko 9. tokian daude eta deustuarrek 10. tokian daude, puntu bakar batera. Edu Orgaz dugu Bergara taldeko entrenatzailetako bat, eta zera esan digu: "Deustua aurreko igo da eta ez dakigu gauza handirik beraiei buruz. Hala ere, ez da partidu erraza izango zapatuko. Dena den, gure asmoa da hiru puntuak etxean geratzea". Bergararrek bederatz partidu jokatu dituzte orain arte: horietatik hiru irabazi, bat berdindu eta gainerako bostak galdu egin dituzte. Aurreko zapatuan Urdulizen galdu zuten, 40-26.
Bergarak zazpi puntu lortu ditu orain arte eta lehen itzulian amaitzeko geratzen diren lau partiduetan beste lau puntu lortzea da helburua. Bihar urrats garrantzitsu bat eman dezakete.



Senior mailako mutilen eskubalo taldeak Loiola hartuko du domekan.

PILOTA

Gabon sariko eta Gipuzkoako Txapelketako partiduak domekan Udal Pilotalekuan

Etzi, domeka, Gabon sariko partiduak izango dira Udal Pilotalekuan, 10:00etan hasita. Ondoren, 12:30ean Gipuzkoako Txapelketako bi partidu jokatu dira: Bergara-Antzuola (bigarren kadete maila) eta Bergara-Bearzana (banakako senior maila).

SASKIBALOA

Junior eta kadete mailako saskibalo taldeen partiduak zapatuan Labegaraietan

Zapatuan bi saskibalo partidu jokatu dira Labegaraietako kiroldegian. Alde batetik, kadete mailako mutilen Lacor taldeak Hernaniren bisita izango du, 12:00etan. Bestetik, junior mailako mutilek Cafes Aitona hartuko dute, 16:00etan.

LABEGARAIETAKO FUTBITO TXAPELKETA

ASTE BUKAERAKO PARTIDUAK	
ZAPATUAN, KANPOAN	18:00: Venerir-K.Piperrak. Pagomendi
09:30: PDS-Canalejas. Fac	19:00: TMT-Pagomendi. Torpedo Musakola
10:30: Fac-Egurre. PDS	20:00: Kalaveras-Torpedo. TMT
16:00: Agirrebeña-Dedo Pafarru. Fit auto.	DOMEKAN, KANPOAN
17:00: Fit automocion-SDTNT. Dedo Paf.	16:00: Fit automocion-Teatekh. Cosa Nost.
18:00: Argandolas-De Resaka. Kalaveras	17:00: Cosa Nostra-Irubide. Teatekh
19:00: Kalaveras-Ganbara. De Resaka	18:00: Torrekua-Agirrebeña. Irubide
DOMEKAN, BARRUAN	
16:00: Dedo Pafarru-SDTNT. Toten	
17:00: Toten-Santana. K.Piperrak	

Abesbatzaren ereserkia estreinatuko dute emanaldian

Gabero abesbatzak emanaldia egingo du bihar, zapatua, Zabalotegi aretoan

MONIKA BELASTEGI

Gabero abesbatza gazteak emanaldia egingo du bihar, zapatua, 19:30ean, Zabalotegi aretoan. Kontzertuko egitaraua zabala eta beti bezala denetarikoinuz jantzita dago. Taldearen asmoen artean, datorren urtean CDA grabatzea dago.

Gabero abesbatzak kontzertua egingo du bihar, zapatua, Udazken Kulturaleko egitarauaren barruan. Emanaldia 19:30en izango da, Zabalotegi aretoan, eta sarrera bi euro kostatzen da.

Egingo duten emanaldia hamalau lanez osatuta dago. Denetarikoinuz dira, eta autore askotarikoenak.

GOGO BETEZ ETA ASMO UGARIZ

Iazko ekainean sortu zuten Gabero abesbatza. Gaur egun 22 kide ditu eta gogo betez dihardute lanean. Horren adibide dira, esaterako, Gabonen ondoren eta udaberri aldera dituzten asmoak, David Azurtza zuzendariak azaldu duenez: batetik, Gabonen ondoren CDA grabatzeko asmoa daukate. Azurtzaren esanetan, oso gazte abesbatza gutxi dago, eta abesbatza horiendako obrak ere nahiko urriak dira, ume edo nagusien abesbatzendako ez bezala. Hori horrela, CDA grabatzea Gaberorendako aberasgarria izateaz gain, Azurtzak gehitu du lagungarri ere izan daitekeela beste gazte koro batzuetako zuzendariendako gazte abesbatzei zuzendutako hainbat lan CDan jasota izatea.

Bestetik, udaberriean Belgikan jokatzeko den gazte koroen lehiaketara joateko gogoz daudela azaldu du Azurtzak. Hara joateko eskaria egingo dute, eta erantzunaren zain daude.



Gabero zabalik ditu ateak: martitzenetan eta eguenetan batzen dira entseatzeko, 19:30etik 20:30era, Zabalotegi aretoan.

Egitaraua

'Gabero'(D.Azurza / E. Alustiza)
'Pater noster'(X. Sarasola)
'Maiteak galdegin zautan' .(arm. D. Azurza)
'To walk in Jerusalem
/ By and by'(arr. G. Arch)
'The gospel train'(M. Pschner)
'Ave Maria'(J. Dominguez)
'Jançu janto' ... (XVI. mendeko anonimoa)
'The bnana boat song'(R. Emerson)

'Adieu my heartis lust'(W. Cornyshe)
'The little light of mine'(arr. G. Arch)
'Saratarra'(M. Glez. Bastida)
'Guantanamo' (J. Fernandez / arm. E. Silva)
'When love is found'(arr. D. Kallman)
'Hallo django'(Uli Führe)

Pianoa: Ana Iparragirre
Zuzendaria: David Azurtza

Oskorri gaur Udal Pilotakekuan

MONIKA BELASTEGI

Oskorri taldeak Desertore lan berria aurkeztuko du gaur, egubakoitza, 22:30ean, Udal Pilotalekuan. Emanaldira hurbiltzen diren talde ezagunaren 13 kantu berriak entzungo dituzte, besteak beste.

Bergaran ere egingo du egonalditoxa Oskorri taldeak Desertore azkeneko lana aurkezteko. Gaur gauean izango da hori, 22:30ean, Udal Pilotalekuan.

Hamahiru lanek osatzen dute Desertore, eta berrikuntza nagu-

sietako bat da gaur egun taldea osatzen duten ia kide guztiek -Natxo de Felipe, Anton Latxa, Bixente Martinez, Xabier Zeberio, Josu Salbide eta Iñigo Egia- parte hartu dutela kantuen konposizioan. Gainera, izen handiko bertsolari eta idazleen laguntza izan dute kantuen hitzetarako, besteak beste, Unai Elorriaga eta Harkaitz Cano idazleena eta Andoni Egaña eta Jon Sarasua bertsolariena.

Sarrera arruntak zortzi euro balio du; 26 urtetik beherakoentak, sei; eta 17 urtetik beherakoentak sarrerak, berriz, hiru euro.



Irudian, gaur egun Oskorri taldea osatzen duten kideak.

KULTURAPILULAK

Guatemalaren gaineko dokumental sorta

Mugen Gaietik garapenerako gobernu kanpoko erakundeak Guatemalaren gaineko dokumental sorta eskainiko du datorren astean. Guatemalaren egoeraren gaineko sentsibilizazioa du helburu emanaldi sortak, eta martitzenetik eguenera hiru dokumental ikusteko aukera egongo da. Emanaldiok kultura etxean izango dira 19:00etan.

Lehenengoa datorren martitzenean, abenduaren 2an, izango da: 1995ean Mery Hellen Davis-ek zuzendutako *Tierra Madre* emango dute. Bigarrena eguaztanean, hilaren 3an, izango da: *Las quimeras del diablo*, hain justu. Hori ere Mary Hellen Davisek zuzendutakoa da. Azkena eguenean, hilaren 4an, izango da: *Ajayu* izeneko dokumentala, hain justu ere.

Enaitz Alustiza, Bagare bertso sariketako finalera

Sariketaren hirugarren kanporaketan hartu zuen parte aurreko egubakoitzean, eta abenduaren 4an Gasteizen jokatu zen. Sariketan 20 bertsolarik hartu dute parte eta sei sailkatu dira finalerako. Finala Gasteizen izango da, 20:00etan, Euskadiko Kutxak Dato kalean duen egoitzan.

Historia hitzaldia martitzenean Migel Altuna institutuan

Abenduaren 2an izango da, 19:30ean, Migel Altunan, Udal Agiritegiaren eskutik. Hizlaria Mila Alvarez izango da, eta gaia: *Emakumeak Bergaran antzina erregimenean*.

Tijuana in blue, Danko Jones eta Saxon Jam aretoan

1980ko hamarkadaren erdialdera oso ezaguna egin zen Iruñeko Tijuana In Blue taldea ikusteko aukera egongo da gaur, egubakoitza, Jam aretoan, 22:00etan. Horrekin batera, Silencio Absoluto taldeak ere egingo du emanaldia.

Bihar, zapatua, beste kontzertu bat egongo da, 22:00etan: batetik, Danko Jones Kana-dako hirukotea entzuteko aukera egongo da eta bestetik, Electric Eel Shok.

Azkenik, etzi, domeka, Saxon eta Doro taldeen emanaldia egongo da, 20:00etan.

GURE GAIAK / SMS BIDEZKO MAITASUN MEZUEN LEHIAKETA

Maitasuna SMS bidez ere adieraz daitekeela frogatzeko lehiaketa

ENEIDA ITURBE

SMSak laburrak izan arren oso erromantikoak izan daitezkeela uste baduzu, hori erakusteko aukera eskaintzen dizu Jardun elkarteak antolatutako II. maitasun mezuen lehiaketak.

Egun, poltsikoko telefonoak hainbat kontu esateko erabiltzen dituzte gazteek. Sarri, hitzordua egiteko edo enkarguren bat emateko idazten dira mezuak. Baina, noizean behin, ezustekoren bat emateko edo hitz politik esateko ere balio dute. Eta, zergatik ez maitasuna adierazteko?

Horretarako ere egokiak direla argi geratu zen aurreko aldean Jardunek antolatu zuen SMS bidezko maitasun mezuen lehiaketan. Zuretzat; (m)imoak, (a)isia, (i)lusioa, i(t)xaropena, d(e)sioa, guzti(a)! zioen lehenengo saria lortu zuen mezuak. Bere laburtasunean inspirazioz eta maitasunez bete dagoen mezu hori Gorka Beobide azpeitiarrak idatzi zuen, eta 90,15 euroko saria jaso zuen.

SMSak idazteko hizkuntza berezia erabiltzen dute zenbaitek, lehiaketara aurkeztu zituzten mezu asko ere hala idatziak zeuden. Hona hemen horietako bat: *lep wapisimo! erran nai datzut lenengo lagun 1 zinla, gro ilusio 1 ta orain nre bihotzean dagon gauzak edrrena!! Aunitz mait datzt mezu aundi 1.*

SMS bidezko mezuen saila berria izan zen azken lehiaketan eta oso erantzun ona izan zuen. Berrogeita hamazazpi lagunek parte hartu zuten orduan. Arrakasta hura ikusita, aurten berriro egitea erabaki du Jardunek.

MEZU BAKARRA PARTAIDEKO

Jardun elkarteak XII. amodiozko gutunen lehiaketarako baldin-

I. maitasun mezuen lehiaketak oso erantzun ona izan zuzenez, berriro deitu du Jardunek

Hilabete daukazu burua astindu eta maitasun adierazpen polit bat asmatzeko

tzak kaleratu berri ditu. Horiekin batera, baita II. maitasun mezuen lehiaketakoak ere. Parte hartu nahi dutenek ez dituzte mezuak paperean idatzita aur-

keztuko, SMS bidez bidali behar dituzte poltsikoko telefono honetara: 605 71 24 69. Urtarrilaren 1etik 15era bitarteko epea ezarri du Jardunek mezuak bidal-

tzeko. Testuaren ondoren norberaren poltsikoko telefonoaren zenbakia jarri behar da. Par- taide bakoitzak mezu bakarra aurkeztu ahal izango du.

Urtarrilaren 1era arte ezin izango direnez mezuak bidali, hilabete daukazu burua astindu eta maitasun adierazpen polit bat asmatzeko.

Deutsche Post  World Net
MAIL EXPRESS LOGISTICS FINANCE



Indartsuago.

Mundu-mailan estandar berri bat sortu da Espres-zerbitzuei, merkantzien garraioari eta logistikari dagokienez. Guipuzcoana Euro Express, paketeen alorrean Europako buru dena, DHL Worldwide Express, aireko garraio espresetan munduko buru dena eta Danzas, aireko eta itsasoko zamen alorrean munduko buru dena DHL markapean bildu dira are hobea den osoko zerbitzua eskaintzeko. Orain, eskaintza, zerbitzu eta aukera gehiago jartzen ditugu zure eskura munduko 220 herrialde baino gehiagotan. Zure beharrak edozein direla ere, horiei erantzuna emateko prest gaude. Jar zaitetz gurekin harremanetan eta DHLren indar osoa izango duzu zure negozioaren zerbitzura.

DHL Express Bergara
San Juan Erreka 33
20570 - Bergara
Tel.: 943 763 642
Faxa: 943 765 425

MUNDUA MUGITZEN DUGU 

Pentsio duinen aldeko sinadura bilketa erretiratuen egoitzan

EDU MENDIBIL

Pentsionisten eta aurrez erretiratuen Appalde Debagoieneko elkarteak sinadura bilketa egiten hasi da. Besteak beste, alargunen pentsioen kasuan, gutxienez hileko 600 eurokoa izatea eta erregulazio-oinarriaren %70 aplikatzea eskatzen dute. Aurrez erretiratuen langileei dagokienez, 65 urtetik gorakoek %100 jasotzea eskatzen dute 35 urtez kotizatu dutenen kasuan. Murrizte koefizienteen desagertzea eskatzen dute, aurrez erretiratutakoek, urte bakoitzeko %7-8 bitarteko murrizketa aplikatzen zaie-eta.



ARTXIBOA

LEGEDIA ALDATU NAHIAN

Aurrez erretiratutako argudioak hauek dira: beraiek ez zutela erretiroa aukeratu eta ondorioz, 35 urtez kotizatu ondoren, dagokien pentsioaren %40 galdu dutela. Appaldeko ordezkarien

Appalderen ustez, gaurko legediak erabat diskriminatzen ditu aurrez erretiratutakoak.

arabera, gaur egungo legediak erabat diskriminatzen ditu aurrez erretiratutako langileak.

Erretiratuen egoitzan jaso-

tzen dihardute sinadurak. Gai honen inguruko argibide gehiago nahi dutenek Regino Vallerengana (943 76 27 12) jo dezakete.



Natalio Juaristiren urtebetetzea domekan

Natalio Juaristik 91 urte egingo ditu domekan, azaroak 30. Goiko argazkia Eustakio Agirreoleak ateratakoa da eta Natalioren lehen jaunartzekoa duzue. Natalio aski ezaguna da herrian: Udal Musika Bandako kide izan zen urte askoan, Santa Marinar eta San Pedron abesten du oraindik eta San Joxepeko abesbatzan ere badihardu. Horrez gain, idazteko zaletasuna dauka eta askotan saritu dituzte bere idazlanak. Zorionik beroenak, BERRIGARA egiten dugun guztion partetik.






Mizpirualdeko Asteari agur

Mizpirualdeko jai astea amaitzeko bazkaria izan zen zapatuan. Ehun bat lagun elkarrekin ziren egoitzan, tartean Juanjo Arrieta eta Arantxa Amasorrain (EAJ-EA) eta Angel Santano (PP) Udaleko zinegotziak eta Gregorio Iruetagoiena Mizpirualdeko zuzendaria. Bazkalostean, musika eta dantza izan ziren.

LABUR

Erretiratuen egoitzaren historia jasotzen duen liburua bost eurotan dago salgai

Xabier Ibartzabalek idatzitako *Evolución del hogar del jubilado en el contexto social de Bergara. 1972-2002* liburua salgai dago erretiratuen egoitzan, bost eurotan. Hain zuzen ere, erretiratuen egoitzak azken 30 urteotan izandako ibilbidea jasotzen da liburuan.



D I S E I N U
G R A F I K O A
I N P R E S I O
D I G I T A L A

• **m**arkaren sortzea

- Logotipoak
- Tarjetak
- Oinarrizko papeleria
- Gidaliburu korporatiboa

• **k**atalogoak

- Diptikoak
- Triptikoak
- Liburuxkak
- Menuak

• **k**artelak

- **e**gutegiak
- **p**ublizitatea
- **p**egatinak

• **a**rgazkien inpresio digitala

• • •

Eskaintza bereziak gabonak arte!!!

KOH • 943767320

BARRENKALE 42

20570 Bergara

koh@kohdiseinua.com

www.kohdiseinua.com



Oihana
garitano
Katrin
bastarrika

Telefonoak
665703175
665737711

BONOFOTOA



MIGUEL ANGEL ELKOROBREZIBAR

Ze elizatakoak dira leiho eta arku horiek?

GALDEDEBALDE

1.
Zein herritakoa da Gure Ametsak omenduko duen Benito Lertxundi kantaria?

- A/ Zumaia.
- B/ Lekeitio.
- C/ Orio.

2.
Zein finaletan hartuko du parte Enaitz Alustiza bertsolariak abenduaren 4an?

- A/ Arabako txapelketa.
- B/ Basarri sariketa.
- C/ Bagare sariketa.

3.
Herriko zenbat lagunek egin zuten 3 ordutik beherako denbora Donostiako maratoian?

- A/ Bost.
- B/ Zazpi.
- C/ Hiru.



Super BMn emandako 30 euroko erosketa-txartela
buketatuko du BERRIGARAK asmatzaileon artean!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JOSU MARZOREndako izan da 30 euroko erosketa-txartela.
Zorionak, Josu! Aurreko asteko galderen erantzun zuzenak: Bonofotoa: Igeltsua (Ara-
ne igeltserua) / Galde debalde: 1-B, 2-B, 3-C.



BONOFOTOA

GALDE DEBALDE 1/ 2/ 3/

Ekarri txartela **MARTITZEN EGUERDIRAKO BERRIGARARA!**

IZEN-DEITURAK

TELEFONOA


Nescafe naturala

200 g-ko flaska

3,99 €

664 pezeta

Super BMn beti eskaintzarik onenak!



ARTXIBOA

OGIZUN
koop. elk.
okindegia



Ibargarai 44-46 BERGARA 943 76 45 53
Zubillaga 10 OÑATI 943 78 24 13

Jose M. Martin


pinturak - paper pintatuak
sintasola - moketak - gotilea
pintura industrialia

Errekalde auzoa 5, 1.a
ANTZUOLA
Tf. 943 76 62 02 /
666 517 295

IRURAK MARGOAK
DISEINUAK, S.L.

Era guztietako lanak Paper pintatuak
Moketa eta sintasola Harea zorrotada
Iztuku esponjatua Iztuku faltsua

Aitziturri 6 • 95 posta kutxa • 20570 Bergara
Telefonoak: 943 76 09 32 / 610 259 983 / 984
Faxa: 943 76 09 32



Zorionak!

Zorion itzazu lagunak eta senitartekoak
BERRIGARAren bidez! Ekar ezazu bere argazkia*
eta emaitza ezusteko ederra! **Doan!**

*Argazkiaren neurria, gehienez: 13 x 18 cm.
Pertsona bera bakarrik nahiz taldearen barruan agertzen den argazkia ekar dezakezu.
Argazkia oso-osorik jaso ahal izango duzu, zorion agurra BERRIGARAren agertu ondoren.
Argazkia, urtebetetze eguna baino bi aste lehenago ekartzea komeni da.



BERGARA
Ibai Sanz
Abenduaren 1ean, 4 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Irati.



BERGARA
Leire Igarza
Abenduaren 2an, 9 urte.
Urte askotarako!
Itsaso eta gurasoak.



BERGARA
Julen Muruamendiaraz
Azaroaren 24an, 10 urte.
Zorionak! Maitane, gurasoak.



BERGARA
Maitane Aranzabal
Azaroaren 26an, 7 urte.
Zorionak! Etxekoak, aita
Italiatik eta Irene.



BERGARA
Iñigo Astiazaran
Abenduaren 2an, 7 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Aimar Gabilondo
Azaroaren 25an, 2 urte.
Urte askotarako!
Etxekoak.



BERGARA
Loinaz Mosteiro
Azaroaren 21an, 18 urte.
Urte askotarako!
Auskalo nork.



BERGARA
Peio Otaño
Azaroaren 29an, 9 urte.
Urte askotarako!
Familiakoak.



BERGARA
Belen Mujika
Abenduaren 4an, urteak.
Urte askotarako!
Narrea eta etxeoak.






ELGETA
Jone Izagirre
Azaroaren 27an, 8 urte.
Urte askotarako!
Gurasoak eta Koldo.

Adi!


Argazkiak emateko lekuak:
Bergara: Berrigara, Irizar jauregia,
Barrenkalea 33
Antzuola: Udal Liburutegia,
astelehenetan 17:00etatik
19:00etara
Elgeta: Erosle-Baltxongua

GRUPO **RKUZ** 1950-2003

Zure
etxea da




Araba etorbidea 20
Tel./Faxa: 943 79 23 51
ARETXABALETA



Araba Etorbidea 5
Tel./Faxa: 943 79 41 82
ARRASATE



Mitarte 3
Tel./Faxa: 943 77 04 55
ARETXABALETA



Andramari auzunea 1
Tel./Faxa: 943 79 10 97
ARETXABALETA



Kontuola

ANTZUOLA / Egubakoitza / 2003ko azaroaren 28a / 180. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Irizar • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 03 97 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: kontuola@goiena.com • Lege gordailua: SS1179/02

Talleres Antzuola eta Txorikua botako dituzte Buztinzuriko lanak direla eta

ENEIDA ITURBE

Buztinzuriko urbanizazio lanak Gabon osterako amaituta egongo direla uste du Udalak. Talleres Antzuola zegoen eraikina eraitsi egingo dute. Lan hori kalea itxita dagoen bitartean egiteko eskatu dio Udalak horren ardura duen enpresa eraikitzaileari.

Buztinzuri kaleko urbanizazio lanak bizkor egiten ari dira eta Udalak espero baino lehenago amaituko dituzte. Izan ere, 2004. urte hasierarako egongo dira bukatuta. Horrekin batera, Talleres Antzuola eta Txorikua bota egingo dituzte.

Talleres Antzuola botatzeko asmoa dagoenez, lan hori Buztinzuri itxita dagoen bitartean egiteko eskatu dio Udalak eraikinaren jabe den enpresa eraikitzaileari. Orain erausten ez bada, hori egiterakoan segurtasun neurri handiak hartu beharko direla dio Udalak, eta ez dago kalea berriz itxeko prest.

SAGASTI ETA KALEGOI LOTU

Txorikua etxea ere eraitsiko dute. Horrela, Kalegoi eta Sagasti elkartuko dituen errepidea egingo dute.



Talleres Antzuola Buztinzuriko lanak bukatu baino lehen botatzeko eskatu dio Udalak enpresa eraikitzaileari.

Erabaki hori aspaldi hartu zuen Udalak, baina akordioa egitea falta zen. Oraindik hainbat puntu zehaztu barik dauden arren, Buztinzuriko lanak amaitzen dituztenarako Txorikua bota nahi du Udalak.

Herri barruko zirkulazioa guztiz aldatuko da lan horiek amaitzean. Orain itxita dagoen zatia autoendako noranzko bakarrekoa izango da. Gainera, asteburuetan oinezkoendako bakarrik zabaldu nahi ditu Udalak

Herriko Plaza eta Buztinzuri. Horrekin, oinezkoei emango zaie lehenetsia eta autoek Sagastitik ibili beharko dute. Hala ere, plazan eta Buztinzurin bizi direnek izango dute autoak atera eta sartzeko aukera.

HERRITARREN HITZA / Mikel Larrea • Udaleko idazkaria

Elkarteen gaitasuna

Aspaldidanik esan ohi dugu hainbat kultur, kirol edota giza elkarte desagertzeko arriskuan daudela. Jendeak ez du konpromisorik hartu nahi eta nahiago du erosotasuna, honela kritika eta ikusezinak saihestuz.

Antzuolako kultur elkarrekin "gutxiengo zerbitzuak" betetzen dituzte. Kirol elkarrekin ez dute desgitearen mamua desagerraraztea lortzen. Giza mugimenduek herria kontzientziazteko formula berriak aurkitzeko beharra izaten dute. Eta elkarte politikoei asko sufritzen dute hauteskundetarako listak osatzeko orduan.

Gizabanakoak, bere partaidetza eta erantzukizunaren arabera, lau jarrera hauetako bat hartzen du: Arduragabea: ez du ezertan parte hartzen (zoritarrez gehien goak dira). Begiralea: leialki joaten da deitutako deialdiara, baina bere partaidetza ekintzetara joatea besterik ez da. Partehartzaile: zentzu guztietan laguntza emateko prest azaltzen da; oso borondate onekoa, baina



"Antzuolako elkarrekin 'gutxiengo zerbitzuak' betetzen dituzte"

ekitaldiara, baina joatea erabaki nuen. Arduragabea izatetik begiralea izatera pasa

liderraren mendetasun handia du. Liderra: lehendakaria izaten da, garatu behar diren ekintzetan erantzukizun guztia duena.

"Behin, etxean nengoela, aste kultural baten foiletora heldu zitzaidan eskuetara. Erakargarria zirudien egitarauak. Inoiz joan gabea nintzen halako

nintzen. Denborarekin, deitzen ziren ekitaldi guztietara joaten nintzen, eta antolatzaileek laguntza eskatu zidaten. Poliki-poliki antolaketa lanetan hasi nintzen. Urteak pasa ahala, ez dakit nola, baina elkarrekin lehendakari nintzen. Nire buruari ondorengoa galdetu nion orduan: Nola demontre heldu naiz honaino?"

Helburua arduragabeak etxetik ateratzea da. Haietako batek zure deialdiari erantzuten badio, ahaleginak merezi izan duen seinale. Hauek dira etorkizunean elkarrekin jarraitzea bermatuko dutenak.

Oraindik denboraz gaude.

LABUR

Bertso musikatuena saioa eskainiko dute domekan

Bertso musikatuak entzuteko aukera izango da domekan, arratsaldeko 18:30ean, Orlanen. Arantxa Cruz eta Joseba Ramirezek bertso zahar zein berriak abestuko dituzte, gitarra eta pianoaren laguntzarekin. Musika eta kantuaz gain, diaporamak, esketxak eta dantzak ere eskaintzen ditu ikuskizun honek. *Xalbadorren heriotzean* eta *Mundurats eman ninduzun* dira kantatuko dituzten bertsoetako batzuk.

Kongoko argazkien erakusketa egongo da Orlanen

Anelkarrek Kongoko Kanzenia lurraldera laguntza bidaltzeko kanpaina jarri du abian. Antzuolarrak Kanzenian bizi diren biztanleek bizi duten egoeraz jabe daitezten argazki erakusketa egongo da Orlanen asteburu honetan eta hurrengoan. Kongon izan diren antzuolarrak -Bittor eta Andres Arbuluk eta Jone Letek- egindako argazkiak egongo dira ikusgai, zapatuetan 18:30etik 20:00etara eta domeketan 12:00etik 14:00etara eta 18:30etik 20:00etara.

Emakumeen aurkako indarkeria salatu zuten

Pasa den martitzenean, azaroak 25, Emakumeen Aurkako Indarkeria Desagerrarazteko Nazioarteko Eguna izan zen. Antzuolarrak ere emakumeek jasaten duten indarkeria salatu nahi izan zuten. Hain zuzen ere, kale bilkura egin zuten Herriko Plazan, arratsaldeko 19:00etan. Udaltzeko balkoian lazo zuria jarri zuten egun hori zela-eta. Martitzena aurretik herritarren artean jertsean zintzilikatzeko lazoak banatu zituzten, martitzenean soinean eramateko.

ELKARRIZKETA

JOSE FRANCISCO AMIAMA/PSIKOPEDAGOGOA

"Familia batean guztiek parte hartu behar dute eta erantzukizuna izan"

Martitzenean, abenduak 2, Familia ardurakizuna: nola bultzatu kooperazioa eta arduraren seme-alabengan programa aurkeztuko dute Eskolan. Programa honen helburua guraso talde bat sortu eta familia ardurakizunaren inguruko ikastaroa egitea da. Isabel Bartau programaren sortzaile eta bultzatzaileak eta Jose Francisco Amiama saioak zuzenduko dituen psikopedagogak egingo dute hitzaldia.

Zertan datza aurkeztuko dituzuen programa?


Isabel Bartauk eta Juana Magantok egindako ikerketa batean oinarritzen da programa. Familia ardurakizuna landu dute eurek, eta orain, Gipuzkoako hogeitahiru herritan gurasoak gai horren inguruan prestatzeko eskolak antolatuko ditugu. Antzuolan guraso taldea sortuz gero, nik zuzenduko ditut saioak. Programa oso berria da, baina guraso eskoletako dinamika dauka eta honetan gero eta esperientzia handiagoa dago.

Zer da familia ardurakizuna?

Ardurakizuna erantzukizuna da, baina etxeko guztiok izanda erantzukizuna. Programa horrek bi puntu interesgarri ditu: kooperazioa eta ardura. Familia baten denok parte hartu behar dugu. Garai baten aitak agintzen duen eta besteek, hark esandakoa egin. Egun, beste era batean ulertzen dugu hori. Lehen, esanekoa izatea zen garrantzitsua. Orain, trintxo izate hori ez da nahikoa; ardura eta autonomia izan behar dute umeeak. Gurasook dinamika berri batera ohitu behar dugu. Horregatik gero eta garrantzitsuagoak dira guraso eskolak.

Nolakoa izango da saio bat?

Astean behin bi orduko saioa izango dugu. Parte hartzeak izango dira horiek; izan ere, hausnarketak izango du garrantzia. Irakurtzeko materiala dago saioa



Orain trintxo izatea ez da nahikoa; ardura eta autonomia izan behar dute umeeak

nondik norakoa izango den jakiteko, baina gero, taldean horretaz hitz egiten da. Ariketen bidez, praktikan jarriko ditugu esandakoak. Helburua han ikasitako estrategiak etxera eraman eta probatzea izango da. Saioak zein hizkuntzatan

Saioak parte hartzeak izango dira; hausnarketak izango du garrantzia

egin dituzu? Taldearen arabera erabakiko da hori. Guztiek euskaraz badakite, euskaraz egingo ditugu. Zer esango zenieke gurasoei saioetarako izena emateko? Atsegina izango dela eta gogoeta egiteko balioko diela.

KIROLA

Arrolak Antzuola ezagutzeko mendi irteera egingo du

Antzulako inguruak ezagutzeko irteera egingo du Arrolak domeka honetan. Ibilbidea Herriko Plazan hasiko dute eta Aristiberrira joango dira; handik Misora igoko dira. Rancho Alegren egingo dute hamarretakoa eta horren ondoren Landatxotik behera itzuliko dira.

Parte hartzeak ez dago izena eman beharrik; joan nahi duen guztiak goizeko 09:00etan Herriko Plazan egon beharko du. Berez, aurreko astebururako pentsatua zuten irteera hori, baina atzeratu egin dute.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Azaroak 29
12:00: Antzuola-Bergara (Kadeteak)

PILOTA

Azaroak 29
17:00: Olalde-Illunpe 1 (eskuz nag.)

EMAITZAK

FUTBOLA

Antz. 1 Aurrera Ondarroa 1 (2. erre.)

PILOTA

Gipuzkoako txapelketa
Murumendi-Olalde (eskuz nag.) 19-22
Olalde-Elordi herrigintza (kadet.) 22-11
Olalde-Urrietako (paletaz nag.) 35-16

EHIZA


Toledo, Euskadiko Oilagor Txapelketan

ENEIDA ITURBE

Iñaki Toledo antzuolarrak Euskadiko Oilagor Txapelketan parte hartuko du domeka honetan Leitzarango ibarrean. Gipuzkoako txapelketan garaile izan zen eta hala lortu zuen besterako txartela. Hamar aurkari izango ditu: lau gipuzkoar, hiru bizkaitar eta beste horrenbeste arabar. Txapelketetan esperientzia han-

dikoa da Iñaki; izan ere, azken urteetan Gipuzkoa, Euskadi eta Estatu mailakoetan izan da. Betiere, Moon txakurrak lagunduta.

Ehiza denbora-pasa baino gehiago da Iñakirendako. Azarotik urtarrila bitartean, astean gutxienez lau egunean egiten du ehizan. Nafarroa, Trebiño eta Huescako mendiak gustatzen zaizkio horretarako, baina Antzuolan ere aritzen da.



Iñaki Toledok Euskadiko Oilagor Txapelketan parte hartuko du domekan.

LARREA

TABERNA

Kalebarren 17
ANTZUOLA

IGELTSEROTZA

Jose Luis Zabalo

Kalegoi 9, 1. solairua
ANTZUOLA.
Tel. 943 76 60 89
Faxa: 943 76 60 14

ZAHAR BERRITZEAK:
Fatxadak
Bainugela eta sukaldea
Lokal komertzialak
Teilatuak

**Eta orain....
GREMIOEN
KOORDINAZIOA**

ARGAZKIAK

Ezkontza erreportaiak
Jaunartze erreportaiak
Momentuko argazkiak
Estudioko argazkiak

BITXITEGIA

Marrokineria
Erlajuak, Bitxiak
Opari gaiak

Herriko plaza 4. Tel. 943 78 70 66. ANTZUOLA

Goibekokale

ELGETA / Barikua / 2003ko azaroaren 28a / 164. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Irati Agirreazaldeggi • Barrenkalea 33 20570 BERGARA • Tel.: 943 76 92 71 • Faxa: 943 76 29 77 • Posta elektronikoa: goibekokale@goiena.com • Lege gordailua: SS475/95

Olentzero lehiaketa eta plaza inguruan argiak izango dira Gabon jaiak girotzeko

IRATI AGIRREAZALDEGI

Gabonetarako hilabete baino gutxiago falta den honetan, jaiak girotzeko prestakizunetan hasiak dira herrian. Batetik, abenduaren 19rako argiak ipiniko dituzte plaza inguruan eta bestetik, Olentzero lehiaketa antolatu dute abenduaren 20rako.

Orain artean, Gabonetan, beti ipini izan dituzte argiak herrian, eta aurten ere hala egingo dute jaiak gerturatu ahala, herria girotzeko asmoz.

Argiak ipini edo ez ipini izan da eztabaidarik Udalean, baina azkenean jartzeko erabakia hartu dute. Aralar alderdiko zinegotziek ezadostasuna azaldu zuten gai honen inguruan, argiak ipintzea gastu energetiko handia izateaz gain, kontsumismoaren irudi ere badela argudiatuta, eta Gabonak beste modu batera girotu daitezkeela esanda.

Hala ere, Udalak plazako zuhaitzetan bonbillak ipiniko ditu, herriko sarrerako arkuaren alde banatan, *Zorionak* idatzita argiekin, eta udaletxeko balkoietan, berriz, piztu eta itzaltzen



GOIENKARIA

Abenduaren 23an, Olentzero kalez kale ibiltzen den egunean banatuko dituzte lehiaketako sariak.

diren koloreetako argiak. Abenduaren 19rako argiak jarrita egongo dira eta Gabon jaiak amaitutakoan kenduko dituzte argiak.

OLENTZERO LEHIAKETA

Bestalde, Gabonei beste ukitu bat eman nahian, Olentzeroren irudiak egin eta onena zein den aukeratzera proposatu zuen Aralar

alderdiak azken Kultura batzordean, eta honela ipini dute Olentzero lehiaketa abian.

Edozein herritarrek, ume, gazte zein heldu, har dezakete par-

Argiak ipini edo ez erabakitzerakoan eztabaida izan da Udalean, baina ipini egingo dituzte

te. Irudiak abenduaren 20an, zapatua, arratsaldean, plazara eraman beharko dituzte parte-hartzaileek eta ondoren, sei lagunek osatutako epaimahaiak erabakiko du zein den egokiena edo saria merezi duena.

Sari banaketa abenduaren 23an egingo dute. Olentzero kalez kale ateratzen da Elgetan egun horretan, herriko umeen eskutitzak jasotzen, eta egun hori aprobetxatuko dute antolatzaileek.

Ondoren, Gabonak pasatu artean aurkeztutako irudiak herriko hainbat txokotan jarriko dituzte ikusgai. Oraindik zehazteke badago ere, baliteke herriko elkarteetako balkoietan ipintzea irudiok.

Parte hartu nahi dutenek, beraz, 22 egun dituzte ahalik eta irudirik egokienak prestatzeko.

ZIRKULAZIOA

Semaforoak, datorren asterako konponduta

I.A.

Orain dela hilabete hasi ziren funtzionatzen autoen abiadura moteltzeko herrian ipinitako semaforoak, eta denbora gutxi pasa arren, jadanik semaforoetako bat ez dabil.

Joan zen egunean, eguerdiko 15:00ak inguruan, Salvador kalean behera, Pagatza aldera zihoan kamioi batek Ozkarbi elkartearen aldamenean dagoen semaforoa jo zuen, eta bere lekutik atera.

Ondorioz, aste honetan zirkulazioa erregulatzeko jarritako argiek ez dute behar bezala funtzionatu, momentu guztietan keinu-argi laranja egon da piztuta.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Garraio Saila arduratzen da semaforo hauetaz, eta bertan adierazi digutenez, kamioiak izorratutako semaforoa lehenbailehen konpontzea da euren asmoa. Beraz, datorren astean berriz ere herri erdiguneko zirkulazioa semaforo bidez araututa egotea espero dute.



Ozkarbi Elkartearen aldameneko semaforoa jo zuen kamioi batek egunean.

LABUR

Azpiegituri buruzko hitzaldia eguaztenean

Datorren eguaztenean, abenduaren 3an, Javier Zuriarrain Gipuzkoako Foru Aldundiko Bide Azpiegiturarako arduradunak hitzaldia egingo du Elgetan. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan izango da EAJ alderdiak antolatutako hitzaldia eta arratsaldeko 19:30ean da hitzordua. *Elgeta eta Deba* goieneko azpiegituren eta proiektuen egoera izenburupean, beste hainbat gauzaren artean Elgetako saihebidetaren gainean jardungo du Zuriarrainek.

ELKARRIZKETA

ANA ALTUNA/MUSIKA IRAKASLEA

"Ikastaroa gurasoek umeei kantatzeko baliabideak izateko antolatu dugu"

Udalak antolatuta datorren abenduaren 4an eta 11n haur kantu ikastaroa izango da, Ana Altuna Herri Eskolako musika irakasle donostiarraren eskutik. Ikastaroak bigarren zati bat izango du otsailean.

Zer dela eta antolatu duzue kantu ikastaroa?

Gurasoek umeei kantuak irakasteko baliabiderik ez zutela eta horrek ahozko transmisioan eragina izan zezakeela ikusita, batez ere gurasoei zuzendutako ikastaroa egitea pentsatu genuen. Nolako kantuak irakatsiko dituzu?

Betikoak, gehienak kantu ezagunak izango dira. *Pintxo-pintxo*, Imanol Urbietaren abestiak, Txirri, Mirri eta Txirribiton pailazoak... Musika klasikoa ere sartu dut zerrendan, baita abesti lasaiak ere. Abenduko ikastaroan 0 eta 3 urte bitarteko umendako kantuak izango dira eta gero, otsailean, 4 eta 5 urtekoendako abestiek beste bi saio egingo ditugu.

Zertan oinarritu zara abestien zerrenda osatzeko orduan?


Esperientzian. Hiru urtez Haur Hezkuntzan jardun dut lanean eta 2 urtekoen gelan musika eskolak eman nituen. Hauekin probatu nuen ea zein kantu zituzten gustuko eta zein ez, eta horren arabera prestatu ditut abestiak. Batez ere kantu sinpleak dira. Pentsatu arren abesti konplikatuak bat gogoko izan dezaketela, ez dugu zerrendan ipini.

Esan duzunez musika klasikoa ere landuko duzue.

Mozart, Tchaikovsky eta horrelakoen kantu batzuk izango dira, bi edo hiru. Musika klasikoarekin irudimena lantzea da asmoa. Beraz, doinu bakoitzeko leinu eta txaloak izango dira.

Nolako izango da ikastaroa?

Kantua aurkeztuko dut lehenengo, hau da, doinua eta letra,



Guztira 60 kantu inguru irakatsiko ditut eta gurasoei bi kasetetan grabatuta emango dizkiet

izanez gero. Honekin batera, keinuak edo bestei bakoitzari dago-kion dantza erakutsiko diet. Gero, etxean umeei abes ditzaten guraso bakoitzari bi liburuak eta beste bi kasete banatuko dizkiegu. Guztira, 60 kantu inguru bil-tzen dituzte.

Musika eta kantuak haurrekiko sentimenduak azaltzeko beste modu batzuk dira

Nolako erantzuna espero duzu?
Elgeta herri txikia izanik, gurasoendako horrelako aukerak ez dira sarri izaten, eta etorriko direla uste dut. Esango nieke animatzeko, haurrekiko sentimenduak azaltzeko beste modu bat baita musika eta kantua.

KIROLA


Pilota txapelketaren azken txanpa jokoan

I.A. Urtearekin batera helduendako pilota txapelketa ere azken txanpara bidean da. Sei partidu ziren jokatzekoak domekan, baina bi bertan behera geratu ziren. Gai-nontzekoetan, Arkarazok eta Larreak, Arantzatarrek, Irazabalek eta Izagirrek eta Arantzabalek eta Telleriak irabazi zuten.

FINALERDIAK
Lehen fasea amaituta abenduaren 19an jokatu dira finalerdiak. Aurrez, txapelketan zehar atzeratu dituzten partiduak izango dira jokoan. Gaur, barikua,

gaueko 21:00etan hasita Ugarte-buruk eta Anttonek Moralesen eta Zenitagoiaren kontra jardungo dute, Arantzabalek eta Telleriak Koldoren eta Txapelen aurka eta Zubiaurretarrek Arro-taren eta Epiren aurrean neur-tuko dituzte indarrak. Falta diren bi neurketak abenduaren 12an izango dira seguru aski.

Finalerdietan izango diren hiru bikote erabakita daude jada-nik: Arantzatarrek osatutakoa, Koldo eta Txapelena eta Arantzabal eta Telleriaren bikotea. Finalerdietan egoteko aukera asko dituzte, bestalde, Zenita-goiak eta Moralesak.



Zenitagoiak eta Moralesak finalerdietarako sailkatzeko aukera dute.

LABUR

Gabonetako bolo txapelketa abenduaren 7tik 26ra bitartean jokatu da

Datorren abenduaren 7an, domekan, hasi eta hilaren 13an, 20an eta 26an Gabonetako bolo txapelketa lau saio izango dira Elgetako bolatokian. Saio guztiak gaueko 23:30ean hasiko dira. Egun bakoitzean batutakoaren %40 jasoko du irabazleak, bigarrenak %25 eta hirugarrenak %15. Txapelketa amaitzean, berriz, sailka-pen orokorreko lehenengo hirurendako saria egongo da, baita lehen emakumearendako ere.

JAR EZAZU HEMEN ZURE PUBLIZITATEA

Goibekokale

RECYDE, S.A.
Pagotza pol. ind. 20690 ELGETA, Gipuzkoa
Tel. zentrala: 943 78 80 00. Faxa: 943 78 90 10
Posta elektronikoa: recyde@recyde.es

AENOR ER
Enpresa Erregistratua
ER-0182/2/95

ISO 9002
QS 9000
ISO/TS 16949

PANA DE ROKUA JATE TXEAL

Eguneko menua
Asteburuetan menu berezia
Especialitateak: babarrun-jana eta saihetsa

SALBADOR 10 ELGETA TEL. 943 76 82 73

ERRETRATU ZAHARRA

ELGETA

Neskatila
koadrila mendi
inguruan

Argazkiko neskatiletako batzuek txikitako lagun koadrila osatzen zuten, eta beraiekin bi kanpotar ere azaltzen dira. Eskolan ez ezik denbora librean ere elkarrekin ibiltzen ziren, ez erretratukoak bakarrik, baita beste zenbait lagun ere.

Mendi aldera egin zuten ibilaldia argazkia atera zuten egunean, orain dela 75 urte gutxi gorabehera. Izan ere, Elgeta inguruko mendiak ikusten dira neskatilon atzeko partean.

Argazkilariauren aurrean zintzo itxurak egin eta denak zuzen ipini ziren arren, ez ziren ez geldi egotekoak neska hauek. Diaboloekin edo txirikilan makina bat jolas egiten zituzten orduan, 6 edo 7 urterekin jolaserako nahiko sasoi izango zuten-eta.

Gaur egun gona motzak jantzita ez da orduan besteko neskatxo ikusten, orain prakak dituzte nahiago, baina garai hartan mutilen kontua zen prakak janztea.

Mendiak atzean dituztela lagun koadrila osatzen dutenak honako hauek dira, ezkerretik eskumara: ezezaguna, Asun Sarasketa, Maxima Telleria, Benedicta Gallastegi eta Maritxu Ejea.

Aurrean agertzen den neskatila gazteagoa kanpotarra da, eta ez dugu jakiterik izan nor den.

Argazkia: Benedicta Gallastegi



ADI, IRAKURLE!


Zure erretratu zaharra argitaratzea nahi izanez gero, zatoz BERRIGARAra (Irizar jauregia, Barrenkalea 33) edo Elgetako kultura etxera. Zain gaituzu!

Dietetika eta Nutrizio Kontsulta

- Osasun arazoak
- Etkez-etxeko zerbitzua
- Balorazio nutrizionala
- Ikastaroak
- Dieta pertsonalatuak

(...) mireia alberdi
DIETISTA-NUTRIZIONISTA
(t) 943 76 60 45
(s) 646 43 34 58
(e) mireialber@euskalnet.net

Olaran etxea, herriko plaza 3
20577 ANTZUOLA



**JAUJA
KIROLAK**

Irizar 2. BERGARA
943 76 14 95

**BERGARA
MARMOLERIA**
PEDRO SALEGI OSA


Sukalde eta bainu enzimarak

Urarte 8 BERGARA
943 76 11 99 / 14 47.
Faxa: 943 76 04 77



Urteaga 9
BERGARA
Tf. 943 76 18 45

ZABALA
JATETXEA • OSTATUA



Labegaraieta, Ibarra 14
BERGARA.
Tf. 943 76 20 07 - 76 42 57

1929az geroztik zure zerbitzura



Manufacturas LARRAÑAGA
LAN-BABESERAKO ARTIKULUAK

Eskularruak: larruzkoak, lonazkoak, nitrilozkoak eta PVCzkoak • Polainak: larruzkoak • Amantalak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Mangitoak: larruzkoak, lonazkoak eta plastikozkoak • Txanoak: lonazkoak eta skay-zkoak • Segurtasuneko oinetakoak • Entzumen-babesa eta begi-babesa • Soldatzaileendako aurpegirako babesa • Maskarak • Lunbalgiarako gerrikoak eta faxak • Hotzaren kontrako parkak • PVCzko trajeak • Soldatzaileendako larruzko jakak (3/4) • Lanerako arropa • Hotzaren kontrako txalekoak • Eta abar.

Leizeaga 1 BERGARA Tel. / faxa 943 76 59 53.

Gabonetarako DENA PREST

OSPAKIZUNETARAKO

- Gazta
- Onddoak
- Ahatekiak
- Estatu osoko artisau produktu sorta ezin hobea...

EDOZEIN EGUNETARAKO

- Bertako barazki ekologikoak
- Gaztelako lekachinak: dilistak, garbantzuak, babarrunak...
- Foie-grasa
- Konfita
- Urdaiazpikoa
- Majoretta
- Datça
- Primerako Gujueloko hestebete iberikoak...

ARDOAK

- Errioxa
- Rueda
- Duero Erriberako ardoak
- Nafarroako ardo apartsuak: Basendoa eta beste marka batzuk

GABONETAKO OTARRETAN AUKERA ZABALA

Zeuk aukeratu produktuak eta guk egingo dizugu otarra!



PLATER PRESTATUAK



ERREGJE BEZPERARAKO ENKARGUAK HARTZEN DIRA!

GABONETAN EZ EGIN LANIK ZARAITZUN DITUZU PLATER GOXOENAK!

GURE PROPOSAMENA GABON GAUERAKO

- Oilo-zopa edo salda
- Kardua nafar erara edo azalorea bexamelarekin
- Bakailaoa pil-pilean edo baserriko oilasko errea
- Intxaur-saltsa edo konpota

20 euro pertsonako

GABON ZAHAR EGUNERAKO

- Arrain-gorri budina edo oilo-pastela perretxikoeekin
- Marisko-krema edo vichisoyse-krema
- Rapea onddoeekin edo solomillo errea hornigaiekin
- Turroizko izozkia, sagar-flana edo fruta

20 euro pertsonako



ABENDUAREN 1ETIK 24RA
gurean erosiz gero otarraren zozketan parte hartuko duzu

ZARAITZU

Artisau-produktuak

Fraiskozuri plaza 3
Telefonoa: 943 76 46 64



Aukera onenak. Orrazkera apainenak.

ADATS

Herri lagunak 4
BERGARA
943 76 49 51

- Europako azken tendentziak
- Zerbitzu berezi eta pertsonalizatua
- Solarium bertikala



Boni Laskurain 2
BERGARA
943 76 56 05

- Txapelketetako Gipuzkoa taldekoak
- Kerastase tratamend.
- Makillaje bereziak
- Abangoardia lanak

disdira

Masterreka 7
BERGARA
943 76 00 55

- Luzatzeak
- Azken joerak
- Ezkontzak
- Metxak eta moldeatuak

IDOIA

Espoloia 4
BERGARA
943 76 97 75

- Ile luzatzeak
- Aurpegiko larruazal garbitzea
- Solariuma

ileak

Ozaeta 3
BERGARA
943 76 22 54

- Ilerako tratamenduak
- Teknika berriak
- Era guztietako orraskerak

Jean Louis David

Ibargarai 43
BERGARA
943 76 22 48

- Teknika aurreratuenak
- Deskontu txartelak
- Solariumerako bonoa
- Estilistaren aholkuak, konpromiso barik

ORRASKI

San Pedro 6
BERGARA
943 76 47 01

- Ile apaindegi mistoa
- Kolore bereziak
- Ezkontzak
- Solariuma

Ostadar

Ibargarai 42
BERGARA
943 76 72 76

- Ile mozte eta kolore pertsonalizatuak
- Depilazioa eta makillajea
- Solariuma dutxarekin

Pepelu

Zurradero 2
BERGARA
943 76 43 07

- Gizonezkoendako Labanaz moztea
- Azken tendentziak
- Bizartegia
- Kolorea

SANCHEZ

Fraiskozuri 4
BERGARA
943 76 23 70

- Gizonezkoendako Labanaz moztea
- Klasikoa/modernoak
- Bizartegia
- Kolorea